



## Alkate eta zinegotzien soldatak

04

Jakin mina eta aldi berean, erre-zeloa sortzen duen gaia den arren, herriz herri, alkate eta zinegotziek zenbat kobratzen duten bildu du-gu.



## Jaunarena aizkolaria txapeldun Altsasun

40

Leitzan bizi den Zubietako aizkolaria 52 urterekin lortu du Bigarren Mailako Txapelketa irabaztea. Heldu den urtean Lehen Mailan aritzeko aukera izanen du.

2007ko urriaren 4a • XXVII. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

JUAN BAUTISTA IRAZOKI ERRETOREA

03

# 18 urteren ondotik, Leitza utzi eta Betelura

# Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua



Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

Proiektu honek aukera ematen dio MAGNARI aparteko natur baliabide honen irabaziaz Baztango jendeekin partekatzeko, euren bizian integratzeko eta elkarrekin aurre egiteko etorkizunari.



## ABERASTASUNA



→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniariak, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegi sektorea.

→ Baztango gazteriar **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko berriz eskualdetara joan behar izatea saihestuz.



## INGURUGIROA



→ Artesiagako Magnesitarekin lurzorua eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarrizatuak diren soroak erdietsi etaazienda azkarragoak.

→ **Ingurumen kalitatearen kontroleko filtro bikoitza** pasa behar du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiariak aurreratuena ingurumenaren zerbitzura.** Uhal garraiatzaileen karentatzeak, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoa bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.

→ Artesiagako Magnesitak errebua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.

## ETORKIZUNA

→ **Epe ertain eta luzerako proiektua.** Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epa bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jardura abokitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



### Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

## DATUAK...

- 18 urteren ondotik, agur esan dio Juan Bautista Irazoki Berako apaizak Leitzari. Hainbeste urteren ondotik, Leitza herri berezia dela iritzi dio.
- Erretore lanean aritzeaz gain, herriko bi abesbatzetan zuzendari lanetan ibili da, Asketa Txiki eta Gazten.
- Betelun eta Araitz aldeko herrietan hasiko du ibilbide berria. Bere ordezkari Patxi Izko izanen da Leitza eta Aresoko parrokiaren arduraduna, eta Inaxio Azkoaga Gorriti eta Uitziko parrokiakoa.



Juan Bautista IRAZOKI *Leitzako erretore eta Asketa abesbatzako zuzendari ohia*

ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

# «Elkarrizketa bidez pake giroa sustatu eta elkar ulertzea sendotzen saiatu naiz»

Joseba URKIOLA

**18 urteren ostean, amaitu da zure Leitzako bidea. Zer moduzkoa izan zen irailaren 16ko azken eszena?**

Oso ederra eta hunkigarria izan zen. Horrelako egunetan, maitasun giro berezia agertu ohi da eta 16an berdin gertatu zen. Leitzan gisa horretako ekitaldietan gauzek gainezka bezala egiten dute. Abesbatzak, dantzariak eta jendeak eginiko opariak asko betetzen baitute. Merezki baino gehiagoko agurra eskaini zidaten.

**Urte eta garai desberdinak bizitzeko parada eduki duzu. Zer irakatsi dizu Leitzako egonaldi luzeak?**

Leitza zentzu askotan oso herri aberatsa da. Leitzan egoten den orok gauza asko eta asko ikasteko aukera izaten du. Pertsonalki gauza asko eta era askotakoak ikasi ditut, eta ikasi dudana eta ez dudana zehaztea nahiko zaila da.

**Eta zu, zer irakasten ahalegindu zara leitzarrei?**

Apaizon eginkizuna, Kristoren mezua irakastea da. Hori izan da egiaz, neurri lehendabiziko helburua. Horrekin batera, herrian gauza askotan bar-

**«Leitza zentzu askotan oso herri aberatsa da. Leitzan egoten den orok gauza asko ikasteko aukera izaten du. Pertsonalki gauza asko eta era askotakoak ikasi ditut»**

neratua ibili naiz. Horietan denetan helburu bakarra eta argia izan dut, elkarrizketa bitartez pake giroa sustatu eta elkar ulertzea sendotzea.

**Leitzako erretore izan zaren aldeetik, utzi duzu ametsik bete gabe?**

Ametsek, zalantzarik gabe, beti goian behar dute izan. Gertatu ohi diren gauzak, berriz, lurreratu eta behean geratzen dira. Zentzu horretan, goian geratu diren gauza asko izan direla esan nahi du. Dena den gauza konkretu bat zehaztea, benetan zaila egiten zait. Adibide bat jartze aldera, gazteen afera litzateke. Hasieran kristautasunarekin oso konprometitu ibili eta urteak joan ahala, fedearengandik urruntzen joan diren gazteenak. Nahi batzuk betetzeko aukera izan dut eta beste batzuk goi hortan amets edo utopia moduan geratu dira.

**Parrokiak gain, Asketa abesbatzak eman dizkizu buruhaustek...**

Abesbatzaren inguruan ez neukan inolako nahirik hasieran. Orain 18 urte, uste ez nuen gauza batekin aurkitu nintzen: Leitzan musikarekin berekin egin nuen topo eta pixkanaka, haur eta gazteekin gauzak egiten joan nintzen. Ametsak eguneroko lanak eskaini zizkidan. Abesbatzatik zenbat jende igaro den, eta une hunkigarriak bizi eta jendearengan nolako eragina izan duen ikusita, gorabehera denekin, nahiak bete dira.

**Zure agurrarekin nolako panorama iragartzen diezu oilartxoaren bi abesbatzei?**

Uste baino hobea. Hasieran nire agurrarekin oso zaila ikusten nuen jarraipena. Baina zorionez aurrera jarraitzeko asmoa dago eta horretarako bideak jarri dira.

**Nolako eleberria garatu nahi duzu Betelun?**

Betelu eta orokorrean Araitz bailara neretzat oso ezezegaunak dira. Inolako nahi berezirik gabe, bertakoekin apal-apal barneratu eta harreman bat garatzen hastea gustatuko litzaidake.



ARGAZKIA: AITZIBER LEKUONA

Goizuetako udal ordezkari berriek oraindik ez dute deus kobratu legealdi honetan.

UDAL HAUTETSIEN SOLDATAK

# Eskualdeko alkateen artean Baztangoa da gehien jasotzen duena

**Alkate eta zinegotzien soldatak. Gure ahotan maiz aipatzen dugun kontua izaten da. Zenbat kobratzen ote dute? Gaia publikoa da, eta jakin min handia sortzen duena, baina zenbaitzuetan, informazio hori eskuratzea konplikatu samarra izan daiteke. Errezelo edo mesfidantzarekin jokatzan dute aunitzek alkate edo zinegotzi izateagatik zenbat kobratzen duten galdetuta. Herri batzuetan, haundienetan adibidez, alkateek eksklusiboki horretara dedikatzen dute egunerokoa; bertze batzuek, ordea, —eta hori da eskualdeko udal ordezkari gehien kasua— Udaleko ardura eta bertze lana tartekatzen dute. Bide horretan, Bortziriak, Baztan, Malerreka, Leitzaldea eta Urdazubi eta Zugarramurdiko Udaletara jo eta alkate eta zinegotziek zenbat kobratzen duten bildu dugu. Dena den, zenbait herritan legealdi berriko kopuruak oraindik ez dituzte zehaztu, eta agintaldi berrian oraingoz ez dute deus kobratu. Horregatik, aitzineko udal hautetsiek jasotzen zutena bildu dugu taulan. Gisa berean, aipatu, udaletxeetako langileek edo alkateek eurek emandako datuak direla.**

## Gurutze PIKABEA

Herri batetik bertzera aunitz aldatzen da ordezkari bakoitzak jasotzen duen diru kopurua. Aldea zabala da, eta Herriko Etxeetan emandako erantzunaren arabera, Baztango alkatea da eskualdean gehien jasotzen duena. Estatu espainiarrean, oraingoz, Nafarroa da alkateen soldata lege bidez finkatua duen bakarra. 2004ko foru legeak soldata finkatzearekoan zein diren segitu beharreko irizpideak ezartzen ditu, biztanleriaren arabera guttieneko eta gehienezko neurriak aipatzen ditu. Aldi berean, lansariak ordaintzeko adina diru ez duten udalen kasuan Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasotzeko aukera dago Nafarroan. Joan den legealdian, adibidez, Nafarroako 272 udalerritik 223k Nafarroako Gobernuaren laguntza eskatu zuten. Aurtengoan, berriz, 4.531.463 euro bideratu ditu Gober-

nuak udal ordezkarien soldatetarako. Lege hau udal ordezkariak eurek nahi duten soldata ez jasotzeko onartu zen. Helburu berarekin, estatu espainiarrean ere araudi bat onartzeko proposamenak badaude.

Ondoko taulan kopuru hagitz diferentekin egin dugu topo; ez da berdina Baztanen kasua eta bertze herri tiki aunitzen kasua. Baztango alkatea Nafarroa guztian hirugarren gehien kobratzen duena da: 49.000 euro gordin jasotzen ditu urtean. Herri haundia- goek lan ordu gehiago sartzea eskatzen dutela ulertuta, eskualdeko herri haundienetakoak dira gehien kobratzen dutenak: Baztan (49.000 euro), Bera (35.108 euro). Bi hauetan alka-

teak eskusiboki horretara dedikatzen dira.

Bertze kontu aipagarria, herri aunitzetan oraindik ez dela zehaztu udal hautetsiek zenbat kobratuko duten, eta oraingoz ez dute deus kobratu. Hori da, hain zuzen, Goizueta, Leitza, Arantza, Igantzi eta Lesakaren kasua. Horregatik aitzineko legealdiko ordezkarien datuak bildu ditugu.

### BAZTANEN TIRABIRAK

Gai honetan, Baztanek aipamen berezia merezi du, biztanle gehien biltzen dituen Udala izateaz gain, eta alkate eta zinegotzien soldata bertze leketan baino altuago izateaz gain, azken aldi guztien ahotan ibili delako

soldaten kontua, Udala osatzen duten NaBaI eta UPN alderdien tirabirak tarte-ko. Aitzineko legealdian baino altuagoak dira soldatak, eta hortik etorri dira arazoak. Izan ere, UPNk gorkada hori alderdiaren arabera izan dela dio; NaBaik, ordea, Udalean bakoitzak egiten duen lanaren arabera dela. Zinegotziak delegatuak badira gehiago kobratzen dute, gehiago egunero joaten badira, eta guttiago ez badira delegatuak. Agintaldi honetan NaBaik zuzentzen ditu Udaleko batzorde guztiak, UPNk ez baitzuen onartu eskaini zitzaion Osasun Batzordearen ardura, eurek bi ordezkari nahi dituztelako. Eztabaida bete-betean dago Baztanen.

## UDAL ORDEZKARIEN URTEKO SOLDATAK EDO ASIGNAZIOAK

	HAUTETSIK	ALKATEA	ZINEGOTZIAK	AZALPENAK
ARANO	5	12.000 € garbi	60 € bilkurako	
ARANTZA	7	Legealdi berrikoa zehaztu gabe		Alkate berriak oraingoz ez du deus kobratu. Aitzineko alkateak 12.000 € kobratzen zituen urtean, eta zinegotziek plenoko 60 €.
ARESO	7	7.500 €	Karguaren arabera	Arloetako arduradunak diren zinegotziek 600 € urtean. Horrez gain, zinegotzi bakoitzak plenoko 40 €.
BAZTAN	13	49.000 € gordin	Karguaren arabera	- Egunero joan behar duten zinegotzi delegatuak: 1.200 € hilean - Zinegotzi delegatuak: 600 € hilean - Zinegotzi ez delegatuak: 300 € hilean
BEINTZA-LABAIEN	7	6.319,20 € gordin	977,05 € gehienez urtean	
BERA	11	35.108 € gordin	Batzorde eta pleno bakoitzeko 30 €	Dietak aparte sartzen dira.
BERTIZARANA	7	5.500 €	1.200 €	13.000 €ko laguntza jaso eta hori soldatak eta dietak ordaintzeko.
DONAMARIA	7	6.319,20 € gordin	977,05 € gehienez urtean	
DONEZTEBE	9	150 € bilkurako 60 € batzordeko	150 € bilkurako 60 € batzordeko	
ELGORRIAGA	5	ez dute erantzun	ez dute erantzun	
ERATSUN	5	4.932 € gordin	60 € plenoko	
ETXALAR	7	10.060 €	bilkurako 75,59 €	Zinegotziek gehienez urtean 950,55 € jaso ditzakete.
EZKURRA	5	4.932 € gordin	60 € plenoko	
GOIZUETA	7	Legealdi berrikoa zehaztu gabe		Alkate berriak oraingoz ez du deus kobratu. Aitzineko alkateak 6.923,52 € jasotzen zituen urtean, eta zinegotziek 75,59 € bilkurako.
IGANTZI	7	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Alkate berriak oraingoz ez du deus kobratu. Aitzineko alkateak 8.289 € garbi jasotzen zituen urtean, eta zinegotziak 868,04 €
ITUREN	7	100 € plenoko	100 € plenoko	
LEITZA	11	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Alkate berriak oraingoz ez du deus kobratu. Aitzineko alkateak bilkurako 720 € kobratzen zituen, baina urtean, gehienez, 10.080 €. Zinegotziek, berriz, 80 € bilkurako
LESAKA	11	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Alkate berriak oraingoz ez du deus kobratu. Aitzineko legealdian alkateak 16.107,98 € gordin kobratzen zituen urtean; zinegotziek 116,32 € bilkurako.
OITZ	5	6.319,20 euro gordin	977,05 € gehienez urtean	
SALDIAS	5	4.688 €	60 € plenoko	Alkatearen dietak bamean daude.
SUNBILLA	7	9.117,72 €	100 € plenoko	
URDAZUBI	7	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Alkate berriak oraingoz ez du deus kobratu. Aitzinekoak urtean 4.488 € gordin kobratzen zituen, eta zinegotziek plenoko 62,07 €
URROTZ	5	6.319,20 euro gordin	977,05 € gehienez urtean	
ZUBIETA	7	4.776 € garbi	100 € plenoko	
ZUGARRAMURDI	7	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Legealdi berrikoa zehaztu gabe	Alkate berriak oraingoz ez du deus kobratu. Aitzineak urtean 4.488 € gordin kobratzen zituen, eta zinegotziek plenoko 62,07 €

## ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Ertzuin Erratzuko

### Guraso Elkartearen

### oharra

Erratzuko Eskolan egiten ari diren lanen ondorioz, Ertzuin Guraso Elkarteak kideak ohar honen bitartez gure seme-alaben segurtasunak sortzen digun kezka adierazi nahi dugu eta hainbat protesta plazaratu.

1- Irailaren 7an, ortzirala, ikasturtearen hasierako egun berean, ezustean topo egin genuen obra batzuen presaketekin (andamioen instalakuntza). Jakin ere ez dakigu obrak noiz arte iraunen duen.

2- Lan hauek eskola tenorean egin behar zirela ez genekien, ez Guraso Elkarteak ezta irakasleek ere. Jakin izatera eskolak emateko bertzeko toki bat bilatu eta atondua izanen genuen.

3- Eskola babesteko hartu diren segurtasun neurri bakanak (pasabide estalia sarrerako atearaino eta andamioetan jarritako sareak) gure kezka eta eskaeren ondorioz jarri dira. Halere, ez ditugu nahikotzat jotzen lanen garrantzia, teilatu osoaren moldaketa, kontutan hartzen baditugu: zaborra nahiz elementu arriskutsuen botaketa, zurak eraikinarenean gainean zintzilik, pisu handiko makinariaren erabilera,...

4- Aipatu nahi ditugu Baztango Udalarekin harremanetan jartzeko izan ditugun arazoak. Baita

Eskola Batzordeari ez zaiola moldaketa hauen berri eman ere.

5- Ez dakigunez afera honek zenbat iraunen duen, ardura norena den jakitea exijitzen dugu; Baztango Udala, Hezkuntza Departamentua, eraikuntza-entrepresa,...

6- Erratzuko Eskolan egiten ari diren moldaketa ikasle eta irakasleentzako baldintzak beharrezkoak direla argi izanik, ontzat hartzen dugu teilatu berritzeko egiten ari den ahalegina, baina maistren lana, gurasoen kezka, eta gehienbat gure seme-alaben segurtasuna seriozki kontutan hartzea eskatzen dugu.

### Ertzuin

### Erratzuko Eskolako Guraso Elkarteak

### Joseba Aranibar

### eta Imanol

### Larrañaga presoen

### senide eta lagunei

### elkartasuna

Joseba Aranibar Almandozen atxilotetaren harira, Berako Etxerat elkarteak hurrengo osoko batzarrean premiaz tratatu dadin, mozio bat aurkezu zuen udaletxean uztailaren 16an. EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren eskubideen taula agertuz eta gaiaren kokapena egin ondoren honako puntu hauek ezta-

baidatu eta onar ditzaten eskatzen zitzaien udalbatzari:

- Bere elkartasuna adieraztea Joseba Aranibar nahiz Imanol Larrañaga beratar preso politikoei eta beraien senide eta lagunei.

- EPPKren eskubideen taula jasotako eskubideak aplikatuz, euskal preso politiko guztiak Euskal Herritaruak izan daitezten eskatzea espainiar nahiz frantziar gobernuei.

- Hau hala izanik, konpromisoak hartzeko prest agertzea.

- Mozioaren edukia herritarrei jakinaraztea eta komunikabideetara bidaltzea.

Baina mozio honek egun haietan zuen gaurkototasuna premiaz tratatzea ez zitzaien egokia iruditu EA, EAJ eta Aralarri eta geroagorako utziz, baztertu egin zuten. Aipatutako hiru taldeek elkarrekin adostutako beste mozio bat aurkeztu zuten abuztuaren 16an, besta ondotik, egiten zen osoko bilkurarako, non laburdutako eta *Titanic-en hondoratzea* ren errudunak seinaltatu ondoren, erabaki hauek onartu ziren:

- Joseba Aranibarrentzat erregulazio printzipioa, etxetik hurbil egoteko eskubidea eta inkomunikazio denboran hartutako deklarazioa deusezteza.

- Guztion sufrimendua aitortuz, gatazkaren humanizazioa aldarrikatzea.

- Sakabanaketaren ondorioz, presoen seni-

deek jasaten duten sufrimendua ekiditea eta Imanol Larrañaga eta Joseba Aranibar presoen senide eta lagunei elkartasuna adieraztea.

- Euskal herritar orok zigorra bere inguru sozialean bete dezala aldarrikatu.

- Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek askatasuna duintasunez eskura dezatela.

- Mozio honen berri herritarrei eta komunikabideei jakinaraztea.

Batzar honetan, Etxerat elkarteak aurkeztutako mozioaren aurka egin zuten Na-Baiko partaideek eta horrela bada, beraiena onartu zen.

### Berako Etxerat

### Jende arrotza

### presoen argazkiak

### kentzen

Aspaldi bezala, azken aldirian ere, jende arrotza euskal preso politikoen argazkiak eta ezker abertzalearen zenbait euskal ikur kentzen ari dira Bera aldean:

1- Ostatu batzuetan dauden prisioneroen argazkiak modu itsusian hartu nahi izan dituzte behin baino gehiagotan.

2- Espidobaita elkartearen kanpoko aldean egoten diren euskal presoen argazkiak eraman dituzte oraindik. Eta toki berean zegoen ikurretatik arrano beltzarena ere kendu dute...

Koldar hauei zera eskatzen diegu: zitalkeriak

utzi eta gure jedgea eta ikurrak errespeta ditzatela. Gehiegi eskatzea ote da?

**Berako ezker abertzalea eta Espidobaita Elkartea**

## NABAI, faborez, gezurrik ez

Adierazpen zenbait egin ditu NaBaik irailaren 3an.

Hauxe erran zuen Patxi Zabaletak: «*nafarren borondatea errespetatu-ko genuela erran genuen artean gurea da emandako hitza betetzen duen talde bakarra*».

Eta guk gezurrik erran ez dezala eskatzen diogu NaBairi, Baztandarren borondatea ez duelako errespetatu.

Baztandarrek udal hauteskundeetan ANV-ko bi zinegotzi aukeratu zituzten, eta horietatik bat NaBaik bereganatu du

baztandarren borondatea hankazpitik pastuz. Ongi dakite NaBaiko buruzagiak zer pauso eman behar dituzten beraiena ez dena itzultzeko eta herritarrek emandako botoa errespetatzeko.

Biztertean, hauxe erran nahi diet: iruzurrak ezin dire gezurrekin es-tali.

**Patxi Urrutia Amaiur**

## OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertze-la, ez dira argitaratu-ko.** Iritzi ezberdinek to-kia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzi-tako 25 lerro baino lu-zeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izan- du horretarako eskubidea.

## • 11 GALDERA LABUR •

**Gogoan ahal duzu noiz hartu zenuen lehen aldiz sega?**

Eguna ez, 12 urte inguru izango nituen, aitarekin batera ibiltzen nitzan.

**Baserrian bizi zinen bitartean, asko erabiltzen zenuen?**

Bai, artean ez zegoen makinarik eta dena eskuz bota behar genuen.

**Zer nahiago belarra ala iratzea moztea?**

Aukeran belarra.

**Euskal herrian ezik, kanpoan ere ibilia zera, non?**

Suizan parte hartu nuen, orain bi urte.

**Txapelketaren batean parte hartu duzu?**

Euskal Herriko nazioarteko era-ko txapelketan.

**Zenbatetan txapeldun?**

Aurten Ordizian, baina ni ez naiz beti ibiltzen badaude nik baino parte hartze handiagoa dutenak.

**Neska asko ibiltzen al da kirol honetan?**

Ez gutxi batzuk, dozena bat esango nuke gutxi gorabehera.

**Prestakuntza handia eskatzen al du?**

Zenbat eta gehiago orduan eta hobe, baina nik ez dute astirik izaten.

**Baserrian lasai ari zenean ala esibizio edo txapelketa duzu gustukoan?**

Biak, jende artean ere nahiko lasai ibiltzen naiz.

**Zerk edo nola animatuta hasi zinen?**

30 urtetik gorako bat eskatzen zuten eta inor izan ezean ilobak animatu

eta joan nitzan Se-  
gurara.

**Base-  
rria ala  
kalea?**

Baserria, lasai bizitzeko.



**Ixabel ANSA**  
*Aranoko segalaria*

**Haur Jaioberrientzako osteopatia tratamenduak**

**Karlos Alzugaray**  
FISIOTERAPEUTA  
OSTEOPATIA

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra  
T. 948 630 187 M. 607 853 208

MERTZERIA  
*Leñe*  
LENTZERIA  
Tel: 948 627 514  
Deñoko Plaza, 10 - LESAKA

**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
Iturgintza · gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 - BERA

arropak · maindireak  
mantak · nordikoak  
toallak · kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Almatx, 5 · Tel: 948 630 083

**arkitektoak**

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETREKIDETZA PROIEKTUAK  
URRUGIZIO PROIEKTUAK  
ETXO BERRITZEAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFORMAZIOA: 2D

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TEL 948 581 931

## LANTEGIAK

# Maierreko langileak ordu bateko eta biko geldialdiak egiten ari dira

Irailerarte luzatutako epean ez zuten adostasunik lortu enpresarekin

## ttipi-ttapa

Bi hilabeteko epeak ez du negoziatorik utzi autoentzako plastikozko piezak egiten dituen Ultzamako Maier enpresan. Horren harira, langile batzordeak (LABeko 5, ELA 5 eta UGTko 3) deituta zuzendaritzaren jarrera salatzeke lanuzteak egiten ari dira joan den asteaz gerotik.

Zuzendaritzak uztailaren 3an aurkeztutako Bideragarritasun Planaren arabera, bi pintura makinetatik bat Txekiara eraman nahi da. Horrek plantillako 240 langiletik 107 kanporatzea ekarriko luke. Gisa berean, langile batzordeak 40 lanpostu finiko arriskuan daudela us-te du. Enpresak borts urterako hitzarmena planteatu zuen, hasieran %1eko igoerarekin eta KPI errealearekin bertze hiru urtetan. Gisa berean, 32 lan ordu gehiago sartzea aurreikusten du enpresaren txoste-



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Langileek enpresak lantegiaren etorkizuna bermatu dezan nahi dute.

nak. Zuzendaritzaren asmo horrek langileen artean ezinegona sortu zuen, eta horren bide-tik irailerarte luzatu zuten negoziatzeko epea. Baina epe hori amaitu egin da, eta zuzendaritzak eta langileek ez dute inongo adostasunik lortu. Langile batzordearen arabera, «enpresak modu nabarmenean ugaritu nahi ditu lan baldintza eskasak», eta ne-

goiartzeko epea bukatu delako ari dira geldialdiak egiten.

Langile batzordeak enpresak lantegiaren etorkizuna bermatu dezan eskatzen du. Geldialdiarako deia, berri-z, joan den irailaren 17an luzatu zuen batzordeak, eta hurrengo asteetan segida izanen zuela iragarri. Turnoka, egunean ordu bateko eta biko lanuzteak egi-

nen zituztela aurreratu zuten: irailaren 24tik 30era turno bakoitzeko ordu bateko lanuzteak egin ziren: 11:00etatik 12:00etara, 15:00etatik 16:00etara eta 23:00etatik 00:00etara. Urriaren 1etik 7ra turno bakoitzeko bi orduko geldialdiak eginen dituzte: 11:00etatik 13:00etara, 15:00etatik 17:00etara eta 23:00etatik 01:00etara.

## FLASH

## N-121A errepideko obretan gehiegizko mozketak egiten direla salatu du EAK

Bera- Endarlatsa errepide zatiko obretan «gehiegizko mozketak etengabeak» direla kritikatu du Eusko Alkartasunak. Hala jakinarazi zuen irailaren 14an hedabideetara igorritako prentsa-ohar batean. «Bi hilabetetan egindako bakarria hauteskundeak baino bi egun lehenago autopropaganda kartelak paratzea izan da, eta orain hasi dira dira N-121A eraberritzeko lanak Nafarroa aldean», zioen ohar-rrak. Nafarroako Gobernuaren «arduragabetasuna» ere salatu zuen alderdiak, «ez delako inongo ardurarik izan errail mozketak sailhesteko». Horren harira, «lanen hasieran hainbertze mozketak egiten badira, obra bene-tan martxan paratzean zer gertatuko ote da?», galdetu zuen EAK.

Urteetan Nafarroako Gobernuari N-121A errepidea moldatzea «zein gutti axola izan zaion» ere nabarmendu zuten EAn, eta behin lanak abiatuta «ez zaio inporta auto ilarak eta errepide mozketak ugaritu izana». Errepidean ardura haundiagoz jokatzen arazoak ttikiagoak izanen ziratekeela ere adierazi zuten EAK-koek prentsa-oharrean.

Gipuzkoa aldeko obrak Nafarroakoak baino aurreratuagoak daudela ere gaineratu zuten, eta hori ez dela obrak arduratzen den enpresaren ardura. Hala, enpresak «profesionaltasunez» lanean ari direla azpimarratu zuen.

ASEGURU AHOLKULARITZA

**berawin**

- Asegurua • Lasaiten lur eremua salgai.
- Hegoetara inguruko informazioa
- Eskari handia izateagatik pisuak, etresak, bontak, eta lur eremuak behar dira.

Foruen Plaza, 6 • BERA • Tfnoa: 948 63 06 01 Faxa: 948 63 06 05  
e-posta: berawin@bera.es

**sarobe**  
gaitzologia okindegia

Ordu erdi estaldura 25 bako  
30/80 berri (nabarmen)

948 63 08 99  
www.sarobe.net

**m**

**bentamiguel**  
denda, jatetxea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Tabakoa  
Likorrak  
Janaridenda  
Urdategia

Ibardingo Lepoa • 948 631 209



BERA

# Azpiegitura lanetarako 701.329 euroko dirulaguntza jaso du Udalak

Inbertsio osoa 1.536.084 eurokoa izanen da

## Amaia eta Ainhoa

Berako Udalak egin behar dituen hamar azpiegitura lan ezberdinetarako 701.329 euroko dirulaguntza eman du Nafarroako GobernuKO Toki Administrazio Departamentuak. Inbertsio osoa 1.536.084 eurokoa izanen dela kontuan hartuz, erdia baino gutxiago subentzionatuko dute Iruñetik.

Lanei dagokionez, Legia karrikako 19, 21 eta 23 zenbakien artean dagoen ur-hornidura sarea berrituko da. Legia karrikaren zolaberritzea ere egingen da, Kanttonberri paretik Altzate karrikako bidegurutzeraino. Berako plaza aldera bezala, galtzada-harria jarriko da Altzate aldera ere.

Jamotenea-Kaxerna inguruko zolaberritze lanak ere egingen dira. Horrela, udal igerileku aldera joateko, Labiaga ikastolarako eta zenbait etxebizitzetarako maldan zola berria emanen da eta bide ondoan aparkalekua ere egokituko da. Hegoaldea karrikako ur-hornidura sarea ere berrituko da. Ur-hornidura sarea egitekoan, argindarrerako

kanala ere egingen da, etorkizunean lur azpitik eraman ahal izateko.

Hegoaldea karrikan berean, euritako ura biltzen duen sarea eta zola berrituko dira. Espaloiak egoera onean dau-

denez, ez dira berrituko. Uraldea karrikako zati batean hornidura sarea berrituko da eta zuloa egingen dela probetuz, Udalak etorkizunean argindar, telebista eta telefono sare-

ak sartzeko kanalizazioa ere egingen du bere aldetik. Uraldea karrikako euritako sarea berritzeko eta zolaberritze lanetarako ere dirua jasoko da. Espaloiak bere horretan utziko di-

ra eta Zia erreka gaineko zubian oinezkoak babesteko baranda paratuko da berriz ere. Lanik handiena, saneamendu kolektore nagusia berritzea izanen da, gaur egun izaten dituen isuriak moldatu eta jasari behar duen hondakin-uren emaria murrizteko.

## Urritik aitzinera ludoteka zerbitzua

Bortzierietako Berrintasun arloak, Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Emakume Institutuaren laguntzarekin antolatuta, Bortzierietako gainerako herrietan bezala, urritik aitzinera, 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzako ludoteka zerbitzua eskainiko da Beran ere. Hasiara batean, abenduaren 20a arte irekiko da. Dindaia Fundazioko profesionalak izanen dira arduradunak eta astearte eta ortzegunetan 17:00etatik 18:00etara izanen da zabalik. Ludotekan denbora libreaz gozatzeko aukera izateaz gain, solidaritatea, errespetua eta elkar ezagutza bultzatuko dira.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

## Milurteko erakusketa Toki Ona Institutuan

Irailaren 25ean Medicus Mundi erakundearen Milurteko Busa Toki Ona Institutuan izan zen mundu guztiak osasunerako eskubidea duela aldarrikatu nahian. 2000. urtean 189 estatuburuk eta gobernuburuk Milurteko Garapen Helburuak finkatu zituzten, munduko pobrezia aurka borroka egiteko, eta erakusketa honekin helburu horiek ezagutu eta aldarrikatzeko aukera ematen dute. Bisitariak erakusketaren protagonista bilakatu dira. Bi areto eta multimedia-gela bihurtu den autobus bat ditu erakusketak. Lehenengo aretoan Milurteko helburuei buruzko informazioa ageri da. Bisitariak autobus-txartel bana jasoko dute Osasun Unibertsiala helmugara iristeko. Autobusa multimedia-gela bezala erabiltzen da eta satellite bidezko konexioa du bisitariak Bolibian, Perun eta Camerunen dauden komunikatzaileekin hitz egin dezaten bideokonferentziaz. Hirugarren aretoa zerbitzurako eta elkartzunezko konpromisorako gunea da, bisitariak osasunerako eskubidearen eta milurteko helburuen gainean di-tuzten eskaerak, nahiak eta iritziak adierazteko tokia.

**ZJ**  
14 logela bainu eta TBrekin  
**Zalain**  
jateketa - hostala  
Zalain auzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**ANSONEA**  
Ostatua - Jateketa  
Ezneroko menua eta  
asteburutar menu bereziak  
Terraza estalia eta Ziberkafea  
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

## LESAKA

# Udal igerileku estalia heldu den urte hasiera baino lehen ez da irekiko

Geotermia eta eguzki-plaka sistema jartzeak lanen gibeleratzea eragin du

Aitor AROTZENA

Lesakako udal igerileku estalia ez da urriaren irekiko, iragarria zegoen bezala, heldu den urte hasieran baizik. Irailaren 21ean emandako prentsaurrekoan lanak gibeleratu direla eta horren arrazoiak jakinarazi zituen Udalak, Koldo Erkizia alkatearen eta Jose Mari Flores kirol zinegotziaren bitartez.

Alkateak jakinarazi duenez, lanen gibeleratzearen arrazoi nagusia, hasierako proiektuan aurreikusi ez ziren klimatizazio lanak egitea da. Hain zuzen, geotermia eta eguzki-plakak instalatuko dira. Inbertsio handia eragin badute ere, epe laburrean amortizatu eta urtean 8.000 eta 10.000 euro arteko energia aurrezpena ekarriko du inbertsioak.

«Geotermia ezartzea –zioen Erkiziak– 134.000 euroko aurrekontua zuen eta 40.000 euroko dirulaguntza izan dugu; eguzki-plakak pa-

ratzeko, berriz, 150.000 euroko inbertsiorako 70.000 euroko dirulaguntza izan dugu. Eguzki-plakak ura berotzeko erabiliko dira eta geotermia, ura eta haizea freskatzeko».

Kiroldegia kudeatuko duen enpresak, Urdik, instalazio berria ireki bitartean herriko bertze lokaletan emanen ditu ikastaro ezberdinak, Fermin Unzu zuzendaria aipatutakoaren arabera. Antolatu diren ikastaroen berri eman zuen Leire Portu koordinatzaileak. «Lehenbiziko programa hau adin guzietako jendearekin zuzendua dago, lau urtetik hasi eta hirugarren adinera bitarte eta herriarren kirol aktibitate beharrak asetzea espero dugu. Aktibitateak pilates, Taichi, yoga, mantenimendu gimnasia, aerobika, sevillana dantzak, 4-11 urteko haurrentzako multikirola, karatea, gimnasia lasaia eta dantza latinoak izanen dira». Dena



ARGAZKIAK: AITOR A.

**Kulkiren jolasak eta Bizikleta Eguna irailaren 19an** Arratsalde mugitua izan zuten irailaren 19an herriko neska-mutikoek. Lehenik, ikastolako patioan meatzariekin eta ikazgileekin zerikusia zuten joku-sorta plantatu zuen Kulkik haurren gozamenerako, Kultur Egunen barrerako ekitaldian. Garai bateko jokuak ikasi eta gozatu ondotik, haurrek lasterka edo bizikletaz, plazarako bidea hartu zuten. Izan ere, Bizikleta-eguna ere antolatua zuen Batzokik. Lampreko Patxi Vila eta Euskaltel-eko Jon Bru eta Mikel Astarloza txirrindulari profesionalekin batera Biurgaraiko zubiraino joan ziren ttikienak eta koskorragoak Amineko bidegurutzeraino. Ausartenek, txirrindulari profesionalak galderak egin zituzten eta bertzeek, gustora eragin zieten pedalei bere idoloen ondoan.

den, instalazio berria irekitzen denean, ikastaro gehiago ere izanen dira, igeriketa, aquaerobika, jaioberrientzat igeriketa edo igeriketa terapeutikoa, bertzeak bertze.

## 324 BAZKIDE UDAKO KANPAINAN

Abuztu eta irailean, udako igerilekuan egingo dako kanpainan instalazio berrirako 324 ibazkide egin direla jakinarazi du Urdik eta hauek

abantailak izanen dituzte orain emanen diren ikastaroetan. Bazkideak lortzeko kanpainan urte bukaera arte luzatuko da eta Lesakan ez ezik, inguruko herrietan ere egingen da.

## Erabilera anitzeko aretoa ireki da Antoiun


Erabilera anitzeko aretoa inauguratu zuen udalak Antoiu 27ko 2. solairuan, Osasun Zentroaren parean. Ekitaldia bereab ANFASekin lokala erabiltzeko hitzarmena ere sinatu zuten Koldo Erkizia alkateak eta Javier Arbona, ANFAS elkartearen zuzendaria gerenteak.

Areto berriak Bortzirietako gizarte gaiei aterabidea eman nahi die. Hala, ANFAS elkartearen aldetik Arreta goiztiar programa eskainiko da.

Emakumearen arreta zerbitzua ere bertan izanen da eta erditzerako presatuta ikastaroetan hasiak dira da-

goeneko. Norbera ongizateko lantegia ere aretoan eskainiko da urriaren 2tik azaroaren 8ra eta azaroan eta abenduan jubitoteka ere izanen da, normalki adinekoak zaintzeko lana izaten duten emakumeei denbora libre gehiago eta adinekoei dibertsioa eskaini nahi dien zerbitzua.

Senda Fundazioak ere dolua bizi duten pertsonak bildu nahi ditu areto berrian. Hamabortz egunetik elkartuko dira, asteazkenetan arratsaldeko 7:30etik 9:30era eta norbaitek taldean parte hartu nahi badu 948 258153 telefonora deitu behar du.



## ETXALAR

### 10.350 euro ordaindu dituzte Usategietako postu batengatik

Guztira 68.254,82 euro lortu ditu Udalak aurtengo enkantean

#### Joseba eta Nerea

Inoiz ez zuen inork hainbertze diru ordaindu larmendiko gaineko ehizi postu batengatik: 10.350 euro. 13. postua izan zen, hasiera batean 1.640 eurotan ateri eta sei aldiz prezio garestiagoan saldu zena. Horrekin batera, 11. postua (1.640 eurotan ateri eta 4.600era goitu zen) eta 12. postua izan ziren (1.640 eurotan ateri eta 3.630 eurotarako goitu zen) aurtengo posturik nabarmenenak. 23. eta 24. postuek ere igotera handia izan zuten, lehenbizikoa 960 eurotik 4.656 eurora goitu zen, eta bigarrena 966 eurotik 5.066ra.

Lehen subastan 3. sarea, 11. postua, 19. 20. eta 21. postuak eman gabe gelditu ziren. Sexteoa, postu bakar bateri ere ez zioten sestarik eman. Halere, eman gabe gelditu ziren postu guztiak adjudikatu ziren 10 egunera, Udala ehizturiekin

bildu ondotik. Guztira, 68.254,82 euro lortu ditu Udalak aurtengoan.

#### Landagain eskola handituko dute


Kasik bikoiztu egingen da Landagain Eskola datozen asteetan. Aspaldiko eskaera eta beharrei erantzunez, eraikinaren handitze-lanak hasiko ditu Iruñerriko Lozano Espinosa konstruktoreak. Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren artean ordainduko diren lanak 369.000 euro kostako dira eta datorren uztailerako akabatuko dituzte. Eskuineko aldetik handituko da eraikina, "L" forma osatuz, gibeletako futbol zelaira arte. 164 metro koadroko bi solairu egingen dira. Honen arazoia leku eskasia da. 52 ikasle eta 7 irakasle daude orain eta badira urte batzuk guztiak kabitzen ez direla. Datorren ikasturtean arazo hauek gaitziteza espero da.



EDURNE ELIZAGOIENEN UTZITAKO ARGAZKIA

#### Urritzokietako Bestak

Giro ederrean joan ziren irailaren 16an Urritzokietako bestak. Lurritzi Ederre auzokoekin batera, oraindik bestak egiten dituen auzo bakarra da. Aspaldiko ohiturari segituz, goizeko mezan bildu ziren auzotarrak Santa Krutz ermitan. Ondotik, bazkari ederra izan zuten Sainduko Bordako Zubian. 70 lagunetik goiti elkartu ziren, eta trikitilariekin dantzaldia izan zen gero. Herri-kiroletan ere aritu ziren: tokan, aitzur-tiraketan eta zako-las-terketan, bertzeak bertze, emakumezkoak gizonezkoen kontra. Afariarekin akabatu zen besta. Hurrengo urtean berriz.



**3 BEKO**  
 3 BEKO  
 Frain Auzoa - LESAKA  
 Tfno: 948 637 826

**USOA**  
 nekazari kooperatiba  
 ganaduentzat pentsurik egokiena  
 Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**BORTZIRI**  
 UNSION ANAIAK  
 Sukalderako altzariak  
 Berruso etxea - LESAKA  
 Tel: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

**ERROTARZAR**  
 harategia  
 Bertako produktuak  
 Eztegarra, 3 - BERA  
 Tel/Faxa: 948 630 088

**J. RAMOS**  
 zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut  
 Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

## IGANTZI

# Mikel Aizpurua eta Beti zakurra garaile Artzain Zakur Lehiaketan

Gazta lehiaketan Amalia Seinek irabazi zuen lehen saria

## ttipi-ttapa

Urtero bezala, San Migel besten aitzineko asteburuan hainbat ekitaldi egin ziren: gazta eta artzain zakur lehiaketa, herriko haurren herri-kirol erakustaldia... IV. Gazta Lehiaketara guztira 12 aurkeztu ziren, aitzinek urtean baino bat gehiago. Bortz laguneko epaimahaiak Amalia Seinen gazta aukeratu zuen; bigarren postua Enkarna Etxeberriarentzat izan zen, eta hirugarrena Elena Retegirentzat. 100, 75 eta 50 euro eta oroigarriak jaso zituzten, hurrenez hurren. Arratsaldean, irabazlearen gazta enkantean atera zen, eta sagardo kaxarekin batera 75 eurotan eraman zuten.

Egun berean egin zen aurten XXVIII. aldiz Artzain Zakur Lehiaketa. Eguraldi ona baldin bazen ere, jende gutti hurbildu zen. Zortzi bikoteen artean, Mikel Aizpurua oiartzuarra eta Beti zakurra izan ziren irabazleak. Bigarren postua ere Gipuzkoara joan zen, Aiako Peio Pagadizabalek eskuratu zuen, Alai txakurrarekin. Eta hirugarren lekua Iparraldeko Jean Paul eta Txintxo zakurrarentzat izan zen.

Inguru honetako artzaiak podiumetik kanpo gelditu ziren. Lau garren postua Felix Irigoien amaiurtarrak erdietsi zuen, Pello zakurrarekin; bosgarren ere amaiurtar bat gelditu zen, Joxe Mari Istillart



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Artzain zakur lehiaketako irudia eta gazta lehiaketako lehen hiru sailkatuak.

eta Xarpa. Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza seigarren izan zen Amets

zakurrarekin; zazpigarren Miguel Garaia oiartzuarra eta Linda eta zor-

tzigarren Jose Antonio Ormazabal eta Yuma zakurrarekin.

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**XIFELL**  
Abate 1 - BERA  
Telefono 948 631 402

**ERREKALDE**  
PLATER KONTRATATUAK  
PANTXAK  
Buzkaltzak  
Ongi pasa bestaki!  
TFNoa: 948 630 254 BERA

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopanak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**LEGARRA**  
ESKOLAKO MATERIALA  
PRENTSA

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

## ARANTZA

### Euskara Batzordea birsortzeko informazio bilera egin da

Asier Apezetxea Euskadiko Mendi Bizikleta Maratoiko txapeldun izan da

#### Nerea ALTZURI

Duela pare bat aste, Euskara Batzordea berri ere eratzeko bilera egin zen Udaletxean. Azken urteotan Euskara Batzordeak berez duen indarra galdu ondoren, berrindartzeko eta berri ere lanean hasteko asmoa azaldu da Udaletik. Hori dela eta, herriko eragile eta entitate ezberdinetako lagunak biltzeko deialdia egin zen irailaren 13an. Dozena bat lagun bildu ziren eta Gazte Asanbladako, Ekaitza Elkarteak, eskolako, Guraso Elkarteak eta Udaletxeko ordezkariak hartuz Euskara Batzordea osatu da. Lagun horiekin batera nahi duen orok parte hartu dezake Euskara Batzordeak egiten dituen bileretan. Bertzeak bertze, euskararekin loturiko ekimenetan lanean jardun nahi da Euskara Batzordean: Bai Euskara-

ri egitasmoa, UEMA, Korrika, Nafarroa Oinez... eta suerta daitezkeen hainbat egitasmotan parte hartuz. Horrez gain, urtean zehar izan daitezkeen bertzelako ekitaldiak antolatzeko orduan guztien arteko lana bulkatu nahi du: hurbilen dugun data gainera, Kultur Egunena da, eta tartean aspaldiko urteetan Ekaitza Elkarteak azaroaren 1ean antolatzen duen Base-rritarren Eguna. Nolanahi ere, Batzordea hilean behin bilduko da, eta hurrengo bileran lagun gehiagok parte hartzeko hitza emana dutela adierazi digu Aina- ra Maia alkateak.

#### Asier Apezetxearen garaipen berria

Asier Apezetxeari buruzko lerro batzuk idatzi genituen joan den alean. Denboraldi hasieran garaipenik ez badu lor-



MARTIN LEGARRAK UTZITAKO ARGAZKIA

#### Galiziatik etorri berritan, orain Turkia buruan

Herritar talde bat Galizia aldean ibili zen irailean. 11 aranztar, 3 igantziar eta lesakar batek osatutako taldeak Santiagoko Bidean kilometro batzuk egiteko aukera izan zuen irailaren 6tik 13ra. Herritik abiatu eta Burgos eta Leonen barna ibili ondotik, Galiziara ailegatu ziren. Santiago, Sanxenxo, La Toja eta hainbat xoko ezagutu zituzten. Bueltan Gijonen geldialdia egin zuten, eta Kobadongara ere hurbildu ziren. Azkenik, Euskal Herriko kostaldetik barna etxerako bidea hartu zuten. Orain, ordea, bertze bidai bat prestatzen hasiak dira herrian. Ekainaren 9tik 19ra Turkiara bidai antolatu da. Istanbul, Ursa, Area de Smirna, Eseso eta Tammukale, Denizli, Konya eta Capadocia hiriak ezagutuko dira, eraikin eta xoko ezberdinak bisitatu. Oraindik garaiz bagaude ere, urte hasiera baino lehen (2008a) joan nahi duenak Martin Legarrari jakinaraztea komeni da (948 634030).

tu ere, joan den irailaren 23an Gorlizen (Bizkaia) Euskadiko Mendi Bizikleta Maratoian txapeldun izan zen. Iaz Patxi Cia ultzamarrak irabazi zuen txapelketa bera, aranztarra azpitxapeldun geldituz. Aurten, ordea, Asierrentzat izan da garaipena. Euskadiko txapelketa, baina modalitate normalean (ez maratoian) Asier bigarren izan zen Ciaren ondoren. Maratoiak ez di-

ren bertze ibilaldiak 35-40 kilometrotakoak izaten dira; Gorlizen egindako lasterketak 52 kilometro inguru izan zituen. Asierrek Xorroxin Irratiari eskainitako elkarriketan aipatu moduan, «ederki kostata, baina lasterketa irabazi nuen». Guztira bi ordu inguruko maratoian Unai Yus eta Jabier Ruiz de Larrinaga izan omen zituen areriorik gogorenak. Azkenean txa-

pela berak eskuratu du. Hurrengo hilabeteetan lasterketa saila dituela adierazi zuen Asierrek, Diario de Navarra Ope-na tartean, urriaren 21etik abenduaren 9ra bitartean eginen dena. Hortaz aparte, Berako Katea Bikeren izenean ere, ziklokross txapelketetan parte hartzeko gogo du. Ikusiko da, bere ustez, lana eta zalelasuna uztartzea zaila delakoz. Zorte on!

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**Ituzia**  
Hidroterapiak & Zainketa

HIDROEREINTZA  
HIDROSEMBRA

FERRIS WASHINGTON LARRALDEA

948 637 014  
948 637 194

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanos desde 1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

## SUNBILLA

# Irailaren 22an egin zen Ramon Latasa plaza eta eskulturaren inaugurazioa

580 lagun elkartu ziren herriko frontoian bazkaltzen

## Jaione OTXANDORENA

Hainbertze denbora esperuan egon ondotik azkenean ailegatu zen sunbildar aunitzek espero genuen eguna. Joan den irailaren 22an izan zen Sunbillako plaza berriaren inaugurazio ofiziala, baita Ramon Latasaren eskulturarena ere. Inaugurazioa baino bi egun lehenago iritsi zen eskultura Sunbillara. Berehala jarri zuten plaza berrian, baina inaugurazioko momentu arte, toldo batekin tapatua eduki zuten. Egun haundian, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramon Corpasek eta Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Inguru-

men kontseilariak, Udaleko zinegotzi eta alkatearekin batera, txistulariez lagundurik, udaletxetik plaza berrirainoko bidea egin zuten. Lehenik bedeinkazioa egin zen, ondoren herriko bi dantzarik, Estitxu Arretxea eta Bixente Ibarrak, aureskua dantzatu zuten eskulturaren aitzinean eta Julen Zelaieta eta Angel Mari Peñagarikanok ere bertso batzuk bota zituzten. Aizkolari guztiak elkarrekin argazki pare bat atera ondotik, aizkolariak lanean hasi ziren eta eguerdiko ordu-batak arte luzatu zen 107 aizkolarien erakusketa. 14:30ean 580 pertsona inguru bildu ziren



ARGAZKIA: JOSE DIEGO SARRATEA

## 122 kiloko basurde ikusgarria

Bertez behin ere, herriko ehiztariek badute kontent egoteko arrazoirik. Joan den irailaren 13an 122 kiloko basurdea hil baitzuten, ikusgarria beneran.

herriko frontoian antolatutako bazkarira eta giro ederrean igaro zuten arratsaldea.

## Berriro istripuak herriko sarrera nagusian

Herriko sarrera aldatzeko beharra gero eta haundiagoa bihurtzen ari da. Joan den

irailaren 13an eta 14an istripuak izan ziren, bi egunez jarraian, Doneztebetik Sunbilla aldera sartzeko rotondan. Herriar guztiak sarrera hori erabiltzen dugu Sunbillara sartzeko, baita herrira sartzeko diren gainerako guztiak ere. N-121A errepidea zeharkatu behardugu egu-

nero, eta gehienek ez egunean behin bakarrik. Aipatutako bi istripuetan ez zen kalte pertsonal larriarik izan baina bi istripuak nahiko gogorak izan ziren. Ea sarrera horri irtenbide bat bilatzen dioten lehenbailehen, nahiz herriko Udalak eta nahiz Nafarroako Gobernuak!!

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
agardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
Tel: 948 645 475  
BERA NAFARROA

**BERA** Zera inguruak klase guzietako insektuz (samorra, zintorra, armiarma, kukuxu...) eta erretoi zurgatuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak  
**GOIKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 587 • Zelaia, 42 A • BERA

HERBIBO  
ETXEBE  
EDANTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Malxon eta Véronique  
KARA

**MEDIKUNTZA NATURALA**  
NATUROPATIA  
Kontaketa ordeztegia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordutegi eskatu  
ONDORROGEMATIK INDARTZERAK:  
Diabetes - Azina - Zizareak - Larri azaleko alergiak - Buruko mina  
Oinen izerdia - Prostata, etab...  
IKUSMENAREN BERRERKURATZEA:  
Miopia - Bista ofertua - Estrabismoa - Begi lousak-kataraktak  
GIHARRE ARAZOAK:  
Bixkartzea - Artritis - Erreuma - Artritis - Lumbalgia - Bihurdurak - etab  
Telefona: 943 623 055  
San Marcial, 7 - 4 - IRUN

**APARAN, S.A.**  
BROKOLALIA eta ZURAK  
• Melamina taulak  
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)  
• Txapaz estalitako taulak  
• Entzimerak  
• Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak  
• Pintura eta bernizak  
• Bainurako mogleak eta osagarriak  
• KIT mogleak, esku-erremintak, etab...  
Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

## BEINTZA-LABAIEN

# Iturrondo elkarteak besta eguna antolatu du larunbat honetan

15:00etatik aitzinera eskulanak, herri-kirolak, 300 lagunentzako afaria eta dantzaldia

### ttipi-ttapa

Bertze urte batez, Iturrondo elkarteak Udalaren laguntzarekin besta ederra antolatu du larunbat honetarako, *Urriruko besta* deitua. Arratsaldean emanen diote hasiera ekitaldiei. 15:00etatik aitzinera inguruko artisauek euren lanak erakusgai paratuko dituzte plazan. 18:00etan herri kirolek hartuko dute protagonismoa. 18:00etan arpan apostua jokatu dute lau herritarrek: Etxeberria-Etxeberria, Erasun-Gamio bikotearen aurka. Ondotik, berriz, aizkoraren txanda izanen da. Mindegia-Etxekolonea, Mindegia-Telletxea eta Etxeberria-Telletxea hiru bikoteak bat bertzearen kontra arituko dira.



ARTXIBOA

**Aizkora, arpana eta oso-osorik erreko den aretzea, eguneko protagonistak.**

18:00etatik aitzinera  
Iturengo Joaldunak ere  
karriz karriz ibiliko

dira giroa animatzen.  
Larunbat goizaldean,  
04:00etan prestatzen

hasitako afariaren txanda  
izanen da ondotik.  
06:00ak geroztik erre-

tzen dagoen aretzea dastatzeko aukera izanen baituta hurbiltzen direnek. Kanalean 270 kilo pisatzen dituen aretzea prestatuko dute, eta 20:30erako afaltzeko prest egon beharko du. Afarian, aretzeaz gain, entsalada eta postrea izanen dira, fruta, gazta eta menbrilloa edo irasagarra.

Herritar gehienak ez ezik, inguruko herrietatik ere jende andana hurbilduko da larunbatean Beintza-Labaienera, guztira 300 bat lagun, muga kopuru horretan paratu baitute. Afarirako txartelak Iturrondo elkarteak, Herriko Ostatuan eta Doneztebe-ko Ameztin daude salgai. Afalondoan, Jalisko Band taldearekin gaupasa izanen da.

**Pinturas Pikabea**

**Molinera**

**PINTURAK**

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guziak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA  
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

**BEINTZAKO OSTATUA**

☎ 948 45 00 14

www.alberguamaria.com  
www.alberguamaria.com/berria  
1171 BEINTZA LABAIEN

**ORBELA**

**Pitti**

eskabazioak

Tel: 616 513 491

Mendiaketa plaza, 34 ZUBIETA

## ITUREN

# Taichi Chicun ikastaroa hasi berria du Ibintza Kultur Taldeak

Astelehen eta asteazkenetan ematen da Herriko Etxeko ganbaran

## Arkaitz MINDEGIA

Urtero bezala Ibintza Kultur Taldeak ikastaro berri bat abian jarri du. Aurtengoan Taichi Chicun ikastaroa aukeratu dute eta urriaren 1ean hasi zen. Ikastaroa astelehen eta asteazkenetan izanen da Herriko Etxeko ganbaran. Ikastaro horrez gain, azken urteetan bezala, dantza ikastaroak ere aitzinera segituko du tiki, ertain eta helduentzat.

## Joaldunen ateraldiak

Iturengo joaldunak udan ere beren joariak astintzen ibili dira, Euskal Herrikan kanpora zabaldu dituzte joari soinuak. Irailaren 8an Parisko Euskal Etxeak antolatutako Euskal Jaie-

tan parte hartu zuten. Asteburu berean, Zarauzko Euskal Jaie amaierako bestan izan ziren.

## JOALDUNEN EGUNA

Aurtengo Joaldunen Eguna ez zuen izorratu xirimiriak. Urteroko ohi-turari segituz, bestarihasiera emateko joaldunak eta trikitalariak Amezti auzoan baserri-baserri ibili ziren, baserrietan pintxo batzuk jan ez. Eguerdi aldera herrira itzuli ziren Gure Txokoa eta Igantziko taldeek prestatua zuten herri kirol erakustaldia ikustera. 15:00ak inguruan Herriko Etxeko Ganbaran bazkaria izan zen Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolariekin. Eta arratsaldean dantzaldia izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Mendaur ehiza elkarteak

Ehizarako prestatzen hasia da Mendaur ehiza elkarteak. Aurten ere, eta ohitura duten bezala, hiru herrietako *Ehiza ibilaldia* egin zuten irailaren 16an, hau da, txapelketa bat. Goizean gosariarekin hasi zuten eguna, gero txapelketa hasi zuten eta 21 lagunek parte hartu zuten. Txapelketa honetan 17 plater bota ziren era desberdinetara bakoitzarentzako. Zazpi lehenengoentzat sariak zeuden eta sailkapena horrela gelditu zen: Jaime, Oskar, Imanol, Periko, Isidro, Jon Mikel eta Joxe. Ondoren bazkari eder batekin bukatu zuten ehiztari besta; eskerrak eman nahi dizkiegu antolatzaile lanetan ibili den jendeari, baita Michel Lacambari ere. Datorren urtean berriro ospatuko dugulakoan gaude.

lentzeria-etxea  
**Casa Cambra**  
 Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

**edredoi-azal nordikoak eta edredoietan espezialistak**  
 albornozak • mantelak • edredoi nordikoak • kuxinak  
 ohe estalkiak • maindireak • toailak • edredoi-azal nordikoak



## ZUBIETA

# Euskararen Eguna prestatu dute urriaren 13rako

Eskulan erakusketa, bazkaria, herri kirolak eta dantzaldiak izanen dira

### ttipi-ttapa

Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, larunbat honetan zortzi, hilak 13, egingen da Euskararen Eguna. Horren harira, egun osoko egitarau zabala prestatu dute goizetik hasita. 11:00etatik aurrera herriko artisauen lanak ikusteko modua izanen da, egurra, jertseak, zeramika eta beste gaiak nola lantzen diren. 12:00ak aldera joaldunek herrian barna euren itzulia egingen dute. 14:30ean herri bazkaria egingen da Zubeldia eta Lizaso bertsolariekin. 17:00etan herri kirolak izanen dira ttikientzako eta 20:30etik aurrera Lamiak taldearekin dantzaldia izanen da. Egunari behar bezalako segida emateko, gauerditik aitzinera Ja-



ARTXIBOA

**Argazkia ez da oraingoa, ez horixe, 1994koa da. Urteak dira Euskararen Eguna antolatzen dela herrian, eta aurten ere bertsolariekin bazkaria egingen da.**

lisko Band taldearekin dantzaldia izanen da plazan. Hortik aurrera norberaren esku egonen da noiz arte luzatu besta.

### Talderik ez hauteskundeetan

Ez maiatzaren 27ko hauteskundeetarako, ez urriaren 28koetarako, herrian ez da zerrenda-

rik aurkeztu. Egoera konpontzen ez bada, Nafarroako Gobernu izanen da batzordeko kideak nor izanen diren erabakiko dituen.

## MALERREKA

# Eskulan eta josten ikasteko ikastaroak Donezteben

### ttipi-ttapa

Ezpelura Emakumeen Elkarteak antolatuta, bi ikastaro hasterakoak ziren aste honetan Donezteben. Ikastaro horietako bat josten ikastekoa izanen da, eta astelehen honetan hasi eta heldu den martxoaren 31 bitarte iraunen du. 15:00etatik 16:30era emanen da Azkarreta etxean. Bertze ikastaroa, berriz, eskulanean inguruko izanen da, eta hau ortzegun honetan hasiko da. 63 orduko eskola izanen da, eta 15:00etatik 18:00etara emanen da, hau ere Azkarretan. Batean zein bertzean izena eman nahi duenak 606748798ra deitu.

**bortzirudi**  
bortzirudi@telefonico.net

KARTELAK - KAMUSETAK - BIDERAK - TRUKATRIAK (Nahi duzun nauri - ibainurakin)  
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORISTAK, TITUR BEZELAN - PLANOAK  
ENKIJADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PIPETETIA - BULIGO MATERIALA  
DISEÑU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - ERROTATZAK - IMPRENTA

Etxeora: 76. Eskaineko Beheko D - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

**ttipi  
ttapa**

☎ (0034) 948 635458

**Clinica Dental**  
**Irurita - Rubio**

**ODONTOLOGIA  
ORTODONTZIA  
INPLANTEAK**

Dr. Jose Luis Irurita (Kcl. 240)  
Dr. Bihotza Rubio (Kcl. 241)  
odontologia medikuak

Rx.panoramikoa - periodontzia  
Kirurgia - endodontzia - protesiak

**ODONTOPEDIATRIA - PADI**

ortopedia maxiliarra - umeak eta helduak

Leitza 948 610 713 Doneztebe 948 450 267

**udana salazones**

LINE-EN-ISO 9001  
**LAC**  
SISTEMA DE GESTION DE CALIDAD CERTIFICADO  
SQC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Akaiaga ind. - Barreta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tlxoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

## GOIZUETA

# 13 baserri guztietako bideak asfaltatuta egonen dira laster

Lanak Leitzako Joarbe enpresak egingen ditu

## Esteban AROTZENA

Udalak eta Nafarroako Gobernuak lortu berri duten akordioaren ondorioz, baserrietako bideen sarea ia erabat asfaltatuta geldituko da irailaren 18ko plenoan adjudikatutako lanak bukatzen direnean.

Tupenea, Bikainborda, Martitxenea, Aiarra, Kalekoborda, Olajaundi, Puñalenea, Errero, Portolo, Aldai, Mitxelko, Gorostin eta Tobenekobordako atarietaraino galipotatuko dira bideak, 3.720 metro guztira.

Lan hau egingen duen enpresaren izena, berriz, orain dela 15 egun jakinarazi zuen Udalak, eta aurretik ezarritako baremoaren arabera, Leitzako Joarberen eskaintzak lortu zituen puntu gehien, 315.000

euroko aurrekontuarekin eta lanak bukatzeko bi hilabeteko epearekin. Honen ondoren, Pablo Eskuderoren Goizuetako Estrukturak eta Zabala-Goikoetxea sailkatu ziren, hurrenez hurren. Aipatutako dirutzaren %60a Iruñaren gain joanen da, eta gainerakoa, jakina, Herriko Etxeak ordaindu beharko du.

## Enkantean eskaintzarik ez

Petrixenekoa haritzak (33.315 eurotan baloratuak) eta Zontzorrotz (219.733 euro) eta Maldamalkor (289.586 euro) parajeetako pinuak atera zituen enkantera herriak, baina ez zuten eskaintzarik jaso. Egoera honen aurrean, hainbat kontratista gonbi-

datuko ditu Udalak egoia iruditzen zaien eskaintza-ekonomikoa luzatu dezaten. Horrela erabaki zuen behintzat korporazioak gehiengoz irailera plenoan.

## Azaroko feria

Azaroko ferian azienak kalera ateratzeko gonbita luzatu die Udalak abeltzainei, baina horretarako, urriaren 10a baino lehen, Herriko Etxera deitu edo agertu behar da legeak eskatzen duen tramitea betetzeko.

## Kultur Taldea lanean

Kultur Taldeak denboraldi berriari ekin dio udako oporraldia bukatutakoan. Azaro kulturala eta Xapo aldizkariaren antolakuntza mar-



UTZITAKOA

13 baserrietako atarietarainoko bideak asfaltatuko dira laster. Horien artean Portolo dago.

txan da dagoeneko, baina ideia berriekin eta lanerako gogoarekin heldu den edozein pozik hartuko omen lukete ondoan, azken urte hauetan taldea murrizten joan baita pixkanaka. Hurrengo bilera urriaren 10eko ilunabarreko 8etan egingen omen dute Herriko Etxean.

## Zaharren Eguna

Beti bezala Umore Onak antolatua, urriaren 13-14ko asteburuan ospatuko da Zaharren Eguna. Ekitaldiak urterokoak izanen dira. Bazarrik azpimarratu, Ira-

zu eta Mañukorta bertsoari kantatuko dutela igandeko bazkialurrean eta arratsalde osoan.

## Teknologia berrien kamioia

Teknologia berrien inguruko ezagutza zabalteko, kamioi prestatua etorriko da urriaren 18an herrira. Ordenagailuak eta Internetarako sarbidea izanen ditu, eta edozeinentzat egonen da zabalik. Herritarrek dohainik ibiltzeko aukera izanen dute, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era.

## ARESO

# Antonio Alustiza eta Txiki seigarren Nazioarteko Ardi-Txakur Txapelketan

Euskal Herriko txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen

## Juana Mari SAIZAR

Antonio Alustiza aresoarrak eta Txiki bere txakurak seigarren postua eskuratu zuten Oñatin egindako Nazioarteko Ardi-txakur Txapelketan. Euskal Herriko txapelketari dagokionean, berriz, hirugarren gelditu ziren. Nonbait

eguraldi beroak eta jendearen maila urtetik urtera altuagoa denez, hauek izan dira aurten go emaitzaren ondorioak Antonioarentzat.

## Eliza egoera kaskarrean

Herriko eliza egoera txarrean zegoela bage-

nekin aspalditik, baina oraingoan, eskuinaldeko bobedaren parte erori da, izugarritzko zuloa geldituz. Ez dakigu oraindik zein irtenbide emango zaion arazo honi, Patxi abade berria apezpikutzarekin soluzioa bilatu nahian hizketan ari baita.


## Astumela garbitzen

Astumela erreka bazterreko arbolak, altzak zehazki, moztu eta garbitzen ari dira herriko lanetan aritzen diren hiru peoiak. Eta barreneko aldetik, ur korronteari oztopo egiten dion edozein ere kentzen ari di-

ra, horrela ur emaria hobe izan dadin.

## Teknologia kamioia

Teknologia berriak hobeto ezagutzeko, kamioi prestatua etorriko da urriaren 17an herrira. Edozeinek doan erabili ahal izanen du.



**moda 07-08**

**udazken negua**

## HONORIO TABERNA

DESIGNER ETA EMAGUNEKIDAKO BOUTIQUE

Merkataren kanika, 29 • Donostia • 948450109



## Belzunequi

DESDE 1901



Jaime Urnatis 44, ELIZONDO • Tlxoa, 948 376 056

## bixkiak

ARROPA AGENDA  
KIBOI ETA MODAKO ARROPA DENDA



Arretxea, 7 behea B2 • LESAKA • 948 638 110

## SPINGI

- Arropa formalak eta informalak
- Komplementuak • Bitxiak
- Eskulangintzako materialak

Santiago 88  
Elizondo  
T. 948 580 938



# Udazken - Neguko moda

## JOERAK

Udazken-neguko joera, arropa estrukturatuta eta leunetan igarriko dugu.

'A' formako mozketak nabarmenduko dira eta XXL neurrian puntua eta artilea present daude. Goi mailako jostungintza estiloekin nahasita 'grunge' estiloko ukituak ikusiko ditugu. Jantzi batzuk larruekin apainduko dira, benetakoak edota imitaziokoak.

## KOLOREAK

Koloreei dagokionez, grisa, beltz berriak eta urdin degradatuak nagusituko dira, udazkeneko kolore beroak ahaztu gabe.

Estilo, material eta esteanpatuak aztertuz, udazken-negu honetako moda bete-betean.

## MATERIALAK

### ARTILEZKO FRANELA:

Klasiko hau betiko koloretan itzuliko da: antrazita, itsas urdina, txokolatea, berdea... Artile eta kaxmirrarekin batera, franela da gailen denboraldi honetan, eta gona, galtza, traje eta berokietan ikusiko dugu.

### ARTILE SOTILA:

Kaxmirraren ondotik 'must have' edo derrigorrezko izaten segitzen du. Orain fin-duta dator eta hagitz eroriak gelditzen dira.

### LARRUA:

Bildumaguztietan ageri da larrua, benetako nahiz imitaziokoa, txaleko eta berokietan batez ere.

### DISTIRATSUAK:

Zetazko satena, poliesterrezko satena, txarolak eta lakatuak denboraldi honetan indartsu datoz. Ukitu diskretuekin zure estilora egokitu ditzakezu (bufanda, blusa, bolero...) edo baitaa jantzi nagusian ere.



## ESTILO NAGUSIAK

### Estilo hiritarra edo urbanoa



70. eta 80. hamarkadetan hainbeste erama-  
ten zen "asteburuko" estiloa dugu ate joka. Ar-  
tilea toki guztietan ikusiko dugu, XXL neurriko  
puntuzko jantzietan batez ere. Estilista ugari-  
ren eskutik itzuli da arropa informalen joera be-  
rria, eta horretarako material itxurosoak eta  
informalak erabiliko dituzte. Nahasketa ede-  
rrenen artean: kaxmirra, merioa, mohairra...  
Artilea da jertse, txaketa eta txalekoen oina-  
rriko materiala. Materialen leuntasuna eta ko-  
lore naturalek modu bikainean uztartuak iku-  
siko ditugu.

### 'Rock Chic' estiloa

Zalantzarik gabe denboraldiko joera garran-  
tzitsuenetariko bat rock chic estiloa da. 90. ha-  
markadako gazteek bultzatu zuten 'grunge' es-  
tiloa itzuliko da egungo ukitu bereziekin.  
'Fashionista' ausartek mozketak sofistika-  
tu eta hagitz estilizatuen aldeko apustua egin dute,  
goi mailako jostungintzako ukituak erakusteko.



### Retro kapa-txaketa



Denboraldi honetan retro itxura-  
ko kapa-txaketa dator indarberri-  
tua. Erabiliko diren materialetan,  
berrikuntza modura, artilezko ka-  
pa-txaketak ikusiko dira.  
Belaunerainoko gona edo galtza  
bakeroekin jatzeko joera nabar-  
menduko da.  
Osotasunean begiraturaz, retro eta  
modernoaren arteko nahasketak  
sentsazio atseginak sortzen ditu.

### Gerri altuaren dotorezia

'Business' estiloa gerri-markatuekin itxuratuko  
da. Gerriko zabalen bitartez, trajetako galtzen  
kasuan bereziki, gerria markatu eta galtzak ha-  
gitz altuak ikusiko dira. Bolero eta txaketa motz  
bereziki, maukarik gabeko popelinazko atorrak,  
gerri altu eta markatua, behetik zabalak.



**PIKABEA  
MUJER**

udazken-neguko  
moda

Karrika nagusia, 5  
Elizaren ondoan  
Tfnoa: 948 450 207  
DONEZTEBE

**MIRARI  
PREMAMA**

C/ESTREBATO MUGICA Nº 14 • W 942 41000 • IZUR

Zatoz!!  
eder jartzeko  
behar duzun  
gutia daukagu!

**OSIÑA**  
Jantzidenda  
Bitxiak

Alturak: 3 beheak • LESAKA • Tfnoa: 948 637 951

**lilura**  
ileapaindegia  
Rosa Seminario, 17 - DONEZTEBE  
Tfnor: 948 451 961

Gizon eta emakumeendako  
Moda-modako kolore eta orratzera

**ainhoa**  
estilista  
berria RUTH ILEAPAINDEGAN  
betiko tokian aurkituko gaituzue!!

Bizirik 59 • LESAKA • 948 637 436

**Lulu**  
Hondarribia, 15 • IRUN  
943 616 165

NEURRI HAUNDIAK 70a arte

Linea argi eta forma arkitektonikoak



## EMAKUMEZKOEN OINETAKOAK

Linea argi eta forma arkitektoniko ia eskultoralek, kolore diskretuetan, erakusten dute denboraldiko oinetakoen moda. Napa eta antea, larru distiratsuak, txarolak, kolore bikoitzeko efektuak, krokodilo estanpatua... nagusituko dira oinetako berrietan.

Gomazko zola duten bota altuak eta txorkatilarainoko botinak nabarmenduko dira eta botoiak, kremaierak, tolesturak... izanen dituzte. Bota altuek, orkatila arterainokoek, bailarinek eta plataforma duten sandaliek 70. hamarkadako estiloa gogora ekartzen dute. Joera honetan more iluna, gau urdina eta orlegia ikusiko dira, kontrastea eginez baita gorria ere. Zaldian ibiltzeko bota marroi luzeak, eskuz egindakoak, nabarmendu daitezke eta hauen tonu marroiek koñaka, kaoba eta tonu metaliko diskretuko nabardurak izanen dituzte.

## BOLTSOAK

### Koloreak

Grisa izanen da nagusia. Kolore ilunek, ia beltzek, garrantzi handia haruko dute eta, aspaldiko partez, marroiar aurrea hartuko diote. Hala ere, marroia ez da desagertuko, berze nabardurak ateratzeko erabiliko da: marroi natural mateak, koñaka, marroi iluna eta beisa.

Kontrasterako, gorria, berdea eta oliba koloreak.

### Materialak

Boltsoak erabilgarriak, estilizatuak eta handiak direnez, materialak leunak eta malguak izanen dira. Mate-distira kontrastea belusa eta txarolarekin ikusiko dugu. Krokodiloa modan da berriz ere eta kolore ezberdinetako estanpatuak izanen dituzte.

### Formatuak

XXL boltsoen joera ez da gelditzen. Bolumenak eta leuntasunak markatuko dute estiloa. Zimurrak eta tolesturak bezala, diru-zorroaren antzeko formatuak nahiago dira. Neurri guztietako bandolera gurutzatuak ere eramanen dira. Boltso handiak eta luzeak, nagusiki.




Erabilgarriak, estilizatuak eta handiak

## MAKILLAJEA

Denboraldi honetan bi joera nabarmendu-ko dira. Batetik look naturala: lur eta zilar tonuak, kolore neutroekin markatutako begiak, ezpain transparente eta distiratsuak... Eta bestetik look sexya: kolore ilunekin markatutako begiak (itsas urdina, morea, beltza...) eta ezpain transparente edo ilunak, sentsualak.

Makillajearen oinarriari ukitu nakaratua eman behar zaio. Look naturala lortzeko marroiak eta tonu neutroak erabili. Begiradari argitasuna eman nahi badiozu betazal finkoan urre kolorea eman. Aldiz, itxura sexya lortu nahi badiuzu kolore ilunak erabili: itsas urdina, berde iluna, beltza, grisa... Bekainen azpian zuri nakaratua edo distiratsurekin makillatu argitasuna lortzeko. Betileetako maskara derrigorrezkoa da eta gainera hau nabaria izan behar da. Itxura naturala, osungarria lortzeko masailetan tonu leunak, arrosak jarri. Eta ezpainei dagokionez, begiak aunitz nabarmendu badituzu, gloss distiratsua eman. Aldiz, ezpainak nabarmentzea gustatzen bazaizu, begirada naturala utz ezazu.



Bi joera: naturala batetik, sexya bestetik



## ORRAZKERAK

Orokorrean moderazioa eta diskreziorako joera. Ile soltea eta naturala eramanenda, aliatu artifizialik eta kizkur handirik gabe.

Osotasunean haur itxura, espirituala, neurrizkoa bilatzen da eta hori lortzeko mototsarekin ilea atzean bildu behar eta kopeta garbia eduki. Ilebildu nahasiak edo deseginak ez dira eramanen. Ia dantzariaren efektua lortu behar da, amak eskolara joateko alaba orrazten duen modukoa.

Arazoi honegatik adats edo melenak ez du landu izanaren itxura eman behar, hobe itxura naturala baldin badu.

Moda eta osagarri modernistak

Eztegara, 12 • BERA • 948 631 425

**TABERNA ZAHARRA**  
udazken-neguko moda

Gizon eta emakumeendako arropadenda  
Kortinak eta etxerako arropak

Merkatarien karrika, 11  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 007

**ederne**  
Cellestina Estética

Berrotaran, 7 behea  
20302 IRUN  
Tfnoa: 943 63 24 84

**Alquidepil**

LightSheer diodo laserrarekin behin betiko ile kentzea. Besape, izterondo, goiko ezpainak eta hanketako ilea kentzeko emakumezkoek gehien eskatzen duten tratamendua.

**Futura Pro**

30 minutuko sesioan pisua galdu, zelulitisa kendu, gorpuzkera modelatu, tinkotasuna eta malgutasuna irabazi, estresa eta zimurrak murriztu...

**VelaSmooth**

Zelulitisaren aurkako soluzioa  
Gorpuzkera findu eta modelatzeko elos teknologia duen ekipo bakarra.

**FANTXIKE**  
Mertzena - Opariak - Lertzeria  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA  
Jaime Urutia 15, ELIZONDO - Tfnoa: 948 580 312

*Besta  
maki  
pasal*

**MERCHE**  
MODA HOMBRE  
Serapio Mujika, 11 - 20302 IRUIN - Tel: 943 612 626

**CAPELETTI**  
Mendibil Merkatal Zentrua  
20302 IRUIN • Tfnoa: 943 624 672

**CASA OSTIZ**  
ZAPATADENDA • TABAKODENDA  
LIBURUNDENDA • PAPERTEGIA  
Parrokia 17 • DONEZTEBE  
Tfnoa eta Faxa: 948 450 289  
costiz@telefon.es

**TUCKLAND**



## GIZONEZKOAK

*Denboraldi berriko joera izanen da hori kolorea. Beltzarekin (negu honetako kolore nagusia) horiak hagitz ongi konbinatzen du eta beroki, zapi eta kami-setatan ikusiko da.*

*Baita urre eta zilar kolorea ere. Norberaren esku aukera egitea.*

*Orohar, sport estilo eroso eta dotoreak definituko du gizonetzkoen moda.*

*Trajea ere ikusiko da baina informala. Kirol oinetakoekin, artilezko osagarriekin...*

*Trajea alde batera utzita, sport estiloa nagusituko da txano, galtza zabal, kirol oinetako edo kolore biziko jertseekin.*

## Mokasin eta kirol-oinetakoak



## OINETAKOAK

Hiru joera desberdindu daitezke gizonetzkoen oinetaketan. Batetik mozketa garbi eta estilizatuko mokasinak, napa eta antezkoak batez ere. Kolore leunen arteko nahasketek (zuria eta beltza adibidez) itxura moderno, urbanoa emanen diete. Beisak, kremak, grisak eta marroi argiak izan daitezke. Bertzetik, belarriak edo hebillak dituzten botak eta larru tratatua duten mokasin distiratsuak. Txarolak indar handia hartuko du, kolore beltz, gris eta marroietan, batez ere. Kiroletako oinetakoen haritik joanen da hirugarren joera, estilo informalekoak. Botinak edo soka duten oinetakoak ere eramanen dira. Zola sendokoak eta eskuz egindakoen itxura izanen dute. Larru urineztatuak, tindatuak, anilina eta antezkoak ikusiko dira. Marroi tonuak nahasita izanen dituzte oinetakoak.



Makillaje diskretua, nagusiki



## ITXURA ZAINDUZ

Kosmetika ez da emakumezkoen kontua bakarrik, gero eta gizonezko gehiago dira itxura zaintzeko estetika zentroetara joaten direnak. Berriki arte hagitz arraroa zen gizonezkoak kosmetikoak erosten ikustea eta arraroagoa oraindik makillajeak erostea. Beraiek erabiltzen dituzten makillajeak ezberdinak dira, batez ere koloreei dagokionez. Makillajearen helburuak begi zuloak, pikorrak eta distirak desagerraraztea da. Mutilek fakzioak nabarmentzeko eta pikor eta orbanak kentzeko erabiltzen dute, batez ere. Emakumezkoen helburu berdinak dituzte baina makillajea ez da hain deigarria. Aurten kosmetika marka ezagun batek gizonezkoentzako Terrakota hautsa makillajea atera du. Momentuz, gizonezkoak tonu bakarrarekin konformatu beharko dira baina seguru aski, behin probatuz gero, makillaje honekin liluratuta geldituko direla




## NOLA KONBINATU

Denboraldi honetan horia, beltza eta grisa nahitaezkoak dira. Kolore horia, beltza eta grisaren osagarri erabili behar duzu. Beraz, galtza edo txaketa horia aukeratu eta beltzarekin konbinatu. Zilar eta urre koloreak erabiliz ere arriska zaitezke. Jantzi akoltxatuak, larruzko apaingarriak dituzten txaketak, erabili beharko dituzu. Osagarrietan, kontuan hartu boltsu handiak, fularrak eta militarren estiloko bota edo zapata belarridunak.



Berrotaran, 7 behea  
20302 IRUN  
Tfnoa: 943 63 24 84

### Alquidepil



LightSheer diodo laserrarekin behin betiko ile kentzea. Besape, izterondo, goiko ezpainak eta hanketako ilea kentzeko emakumezkoek gehien eskatzen duten tratamendua.

### Galileo Fitness

Aniketa eta terapia Muskuluak estimulatzen dituen plataforma bibrakorrarekin gorputzeko posizioaren kontrola eta odol zirkulazioa hobetu, zelutisa eta biguntasuna murriztu, gorputza bizkortu



### Tratamentuak

Aurpegi eta gorputz tratamenduak  
Estetika dekoratiboa  
Makillajea  
Manikura eta pedikura  
Ile kentze mota guztiak  
Solariuma



IBARDIN  
948 630 716

Dragon Billabong Rip Curl  
Quick silver Oxbow  
Skunk funk Animal

**MARI CARMEN**  
Arropa KONFEKZIOAK

Haur eta helduentzako arropetan espezializatuak

Errealde Iribarte 22  
(Madrilgoa ondoan)  
**ELIZONDOR**  
Tfnoa: 948 500 688

*txinelka*

Zapatadenda  
**UDAZKEN-NEGUKO MODA**  
Haurrak • Gaztetxoak • Helduak  
Gizon eta emakumeentzat

Arretxea, 20 • LESAKA • Tfnoa: 948 637 594

**IBARROLA**  
Haurrendako arropa  
0-14 urte  
Parriskio Iribarte & Comertzebe  
948 450 463

Old School  
by Tuc Tuc

Small  
by Tuc Tuc



## NESKAK

Xalotasuna eta feminitatea bilatzen duten inspirazioak daude batetik. Horiekin batera, 60, 70 eta 80. hamarkadetan inspiratutakoak ere bai, retroagoak oraindik. Era berean, fauna, flora eta kultur aniztasunarekin zerikusia duten joerak ere ikusiko dira.

## OINETAKOAK

Sport estiloa nagusituko da haurren oinetakoetan, diseinuek kolore eta forma aniztasuna erakutsi. Materialen arteko nahasketak nabarmenduko dira, ehundura eta kolore ezberdinak, jostura apaingarriak, bordatuak eta gainezarritako piezak. Itxitura erabilienak kontaktuzkoak, sokak eta tirak izanen dira. Halere itxitura metalikoak, malguak eta belarri edo hebillak ere eramanen dituzte. Neskei dagokionez 'bailarina' eta 'guillermínak' ikusiko dira, punta biribil eta zola finekoak. Materialei dagokionez, larru, sintetiko eta akabatu opakokoak (nobuck, gamuza, antea...). Txarolak, metalizatuak eta narrastien grabatuak dituzten oinetako distiratsuak ere ez dira faltako. Aipatzekoa da zolek moldura eta ehundura ezberdinak izanen dituztela eta honek kolorearen erabilera dakarrela.


## Kolore alaiak eta distiratsuak



## MUTILAK

Unibertso informal eta formaletan, 'College' kontzeptua izanen da oinarri, iparramerikako fraternidadetan eta ingelesen eskolako uniformeetan oinarritua. Artilea, kotoia, Gales Printzea koadroak, marrak eta efektu jaspeatua duten ehunak nabarmenduko dira. Jantzietan sueterrak, txalekoak eta erronbodun eta marradun buzoak ikusi dira.

'Music fever' kontzeptua Punk rock kulturaren oinarritzen da eta jantziek grafismo eta estanpatu metalikoak izanen dituzte. Kolo-rean, gris indartsuak nabarmenduko dira.



## ESTANPATUAK

Estanpatuak erruz ikusiko dira. Hala ere, ez dago joera hau mugatzen duen irudi zehatzik. Denbora librerako eta opor garaietarako jantziak dira, Afrikako lore eta animalietan inspiratuak.

Bertzalde, arropari erabilgarritasuna eta erosotasuna emanen dioten ehun inteligentek nabarmentzekoak dira. Kontzeptu klabea Sportive da. Hala, kaputxak, poltsikoak, kanguroak, logoak eta markak eramanen dira.

## KOLOREAK

Kolore alaiak eta distiratsuak. Estanpazioa nagusituko da, ez dago oinarritziko jantzirik baina funtzionaltasuna garrantzitsua da. Apaingarriak eta aplikeak dituzten bakeroak nahitezkoak dira.



## BIOK BENTA

GUESS, VERO MODA, ONLY, MISS SIXTY, ENERGIE, REPLAY, LE TEMPS DES CERISES, EASTPAK, KAPORAL, BURBERRY, TOMMY HILFGER, LOIS, LEVI'S, LACOSTE, HUGO BOSS, DIESEL, HAWAIIANAS, CROCI, FREEMAN PORTER

EGUNERO IREKIA 8:30 - 19:00etara • Ibaridin



m

irentxu

- **Markarik onenak:**  
Boboli, Schuss, Paz Rodriguez, Chupa chups, akr
- **30 marka baino gehiago, prezio guztietakoak**
- **Bertan eskuz egindako soinekoak**








Serapio Magika 15 • 943 618 003 • WOL  
Ordizia kalea 5 • 943 001 270 • ORDIZA



**BL**  
arropa-denda

**Neska eta mutilentzako moda gaztea eta osagarriak**

urte osoan Bortziriak, Mamerrekako eta Iparraldeko jendearentzat **%10eko** deskontuak

Ibardingo gaina, 30 • BERA  
Tfnoa: 948 630 709

BLEND emorillolimon

**BIOK BENTA**

GUERLAIN, GIVENCHY, CHANEL, CACHAREL, LAMCONE,  
KENZO, DIOR, YSL, ARMANI, BOSS,  
GAULTIER, THIERRY MUGLER

EGUNERO IREKIA 8:30 - 19:00etara • Ibardin




## 10 GAUZA BEHARREZKO, MODAN EGOTEKO

- Kolore metalizatuko jantziak, zilar eta urre kolorekoak batez ere, izanen dira joera nagusietako bat. Akoltxatuekin gauza bera gertatuko da.
- Horia modako kolorea izanen da eta batez ere beltzaren osagarri.
- Militar itxurako arropa aunitz ikusiko da.
- Txaketa presente izanen da.
- Gizonezkoen modan osagarriek gero eta garrantzi handiagoa dute. Denboraldi honetan fular aunitz ikusiko da.
- Grisa izanen da beste kolore nagusietako bat.
- Zapata belarridunen aldeko joera.
- Denboraldi honetan ez dira boltsoak eramanen... maxiboltsoak bai ordea.
- Larruz beteko dira gizonezkoen armairuak.
- Erlojuak ezin dira faltatu.



**BL**  
arropa-denda

Neska eta mutilentzako moda gaztea eta osagarriak

urte osoan Bortziriak, Mamerrekako eta Iparraldeko jendearentzat %10eko deskontuak

Ibardingo gaina, 30 • BERA  
Tfnoa: 948 630 709


BLEND emerrillolimon

**BIOK BENTA**

GUERLAIN, GIVENCHY, CHANEL, CACHAREL, LAMCONE, KENZO, DIOR, YSL, ARMANI, BOSS, GAULTIER, THIERRY MUGLER

EGUNERO IREKIA 8:30 - 19:00etara • Ibardin

Kontrastea estilo eta materialetan



## 10 GAUZA BEHARREZKO, MODAN EGOTEKO

- Kolore metalizatuko jantziak, zilar eta urre kolorekoak batez ere, izanen dira joera nagusietako bat. Akoltxatuekin gauza bera gertatuko da.
- Horia modako kolorea izanen da eta batez ere beltzaren osagarri.
- Militar itxurako arropa aunitz ikusiko da.
- Txaketa presente izanen da.
- Gizonezkoen modan osagarriek gero eta garrantzi handiagoa dute. Denboraldi honetan fular aunitz ikusiko da.
- Grisa izanen da beste kolore nagusietako bat.
- Zapata belarridunen aldeko joera.
- Denboraldi honetan ez dira boltsoak eramanen... maxiboltsoak bai ordea.
- Larruz beteko dira gizonezkoen armairuak.
- Erlojuak ezin dira faltatu.

ttipi-ttapa telebistan

udazken-neguko moda saioa



uan krema reko beronagusituko. Aldi bereklasikoa eta odernoadenberrikoarekin, uzea eta krema kolorekoa, horrelakoa da denboraldiko joera. Beltza, griserriarekin jazteko apr...



# TTIPI TXARTETELAREKIN beti irabazten da ! ttipi-ttapa 948 635 458

## ◆ AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK

BERAUTO	Bera	%5 Errekanbiotan
ZALAIN MOTOR	Bera	%5 Errekanbiotan
KATEA BIKE	Bera	%5 Konponketetan
DATUCELAY	Elizondo	%15 Bateria eta amortiguadoretan
SANSIÑENA	Elizondo	%10 Olio-aldaketetan

## ◆ AUTO ESKOLAK

SEMPER	Bera	%10 Matrikulan
--------	------	----------------

## ◆ ARGAZKI DENDAK

GOIKO	Bera	%10 Karrete, errebelatze...
AYLA	Bera	%10 Errebelatzea, NAN argazkietan...
MENA	Doneztebe	%10 Errebelatzea
MENA	Elizondo	%10 Errebelatzea
ZALDUA	Doneztebe	%10 Produktuetan
ZALDUA	Elizondo	%10 Produktuetan

## ◆ ARROPA DENDAK

EDURNE	Bera	%5 ( 30 $\pm$ tik goiti, eskura ord. )
J.J. PICABEA	Doneztebe	%10 Galtza-marka batzuetan ez
KATTALINGORRI	Elizondo	%10
IPINGI	Elizondo	%10 ( 30 $\pm$ tik goiti )
FANTXIKE	Elizondo	%10 ( 30 $\pm$ tik goiti )

## ◆ BITXIDENDAK

ETXARTE	Lesaka	%10 Bitxietan
---------	--------	---------------

## ◆ ETXETRESNEN DENDAK

ALTZURI	Lesaka	%5 Etxetresnetan
---------	--------	------------------

## ◆ ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA	Doneztebe	%5 Kosmetikan (30 $\pm$ tik goiti)
		%10 Erregalo artikuluetan eta kosmetikan. Merkealdietan ez

## ◆ HAURREN DENDAK

POTTOKI	Elizondo	%5 opari eta artikuluetan
---------	----------	---------------------------

## ◆ KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK	Elizondo	%8 (30 $\pm$ tik goiti)
ZELA KIROLAK	Bera	%5
AGARA KIROLAK	Bera	%5 Kirol artikuluetan
BIXIKIAK	Lesaka	%10 Kirol artikuluetan

## ◆ LENTZERIAK

MARICRUZ	Doneztebe	%10 (30 $\pm$ tik goiti)
MARICRUZ	Elizondo	%10 (30 $\pm$ tik goiti)
DEÑE	Lesaka	%10 Lentzerian

## ◆ LIBURU DENDAK

NAFARPRESS	Elizondo	%10 Liburu eta ikas materialetan Testuliburu eta bideoak ezik
MAIMUR	Leitza	%10 oparitzeko artikuluetan

## ◆ LURRINDENDAK

ALUSTIZA	Doneztebe	%10
----------	-----------	-----

## ◆ OPTIKAK

OSTARGI	Bera	%10 (30 $\pm$ tik goiti)
ARGIBEL	Elizondo	%10 Anteju graduatuetan
ARGIBEL	Doneztebe	%10 Anteju graduatuetan

## ◆ PENTSUAK

MENDAUR	Doneztebe	%5 Zakurrena, katuen...
---------	-----------	-------------------------

## ◆ TINDATEGIAK

JAIONE	Doneztebe	%10 (12 $\pm$ tik goiti)
--------	-----------	--------------------------

## ◆ ZAPATADENDAK

KALOTXA	Bera	%5 (18 $\pm$ tik goiti)
OSTIZ	Doneztebe	%5
TXINELKA	Lesaka	%10

# ZOZKETA



Zozketan parte hartzeko,  
urriaren 15a baino lehen deitu

## LEITZA

# Urrian hasiko dira eskolaz kanpoko jarduerak

Gurasoentzako ikastaroak ere antolatu dira

**Joseba URKIOLA**

Ikasturtearekin batera, txikienentzako eskolaz kanpoko jarduerak ate joka datoz. Denok Bat Guraso Elkarteak antolatuta, gazte txoek aukera zabala daukate eskuragarri: futbola, igeriketa, pilota, frontenisa... Dena den, kultura eta artearekin lotura daukaten aktibitateak ere eskainiko dira, margoketa eta antzerkigintza, adibidez. Ikastaro gehienak urriaren hasieran abiatuko dira eta udaberriaren edota kurtsu bukaerarekin amaitu.

Baina gurasoek ere edukiko dute jarduera batzuetan parte hartzeko aukera. Lehengo ikasturtean harrera ona izan zutenaz, aurten errepikatzea erabaki dute. Jarduera horiek *Guraso Eskola* eta *Gurasoei zuzenduriko informatika ikastaroa* dira.

### Jesusen Bihotzaren irudia

Herritar batzuek orain gutxi eginiko eskaera bati men eginez, Leitzako Udalak udaletxeko Jesusen Bihotzaren irudia lekuz aldatzea erabaki du. Herriko ordezkarien iritziz, udal txoek ideologia aldetik laikoak behar baitu izan.

Laikotasuna ardatz, Udalak gisa honetako irudi kristauak berezko egoitza batean hobeto ikusten ditu. Oraindik zehazteke dago, aipaturiko irudia non ezarriko den, baina jada hasiak dira lekuz aldatzeko neurriak hartzen. Hala, herriko apaizekin hitz egin dute. Herrian zabaldu den informazio faltasua ukatuz, Udalak argi utzi nahi du sinismen guztiei errespetua dela eta Jesusen irudia lekuz aldatzeko erabakia ez dela kristautasunaren aurkako eraso.

### Aurrerak hasiera txukuna

Aurrera Futbol Taldeak lehen hiru partidetan bi puntu urratuz hasi du denboraldia. Aurtengoan talde txurigorria lehengo urtearekin alderatuta maila bat gorago dago, eta badi-rudi, berritasun hori denboraldi hastapenean nahiko atzeman dela. Orain arteko partidak txukun jokatu dituzten arren, esperientziak eskain dezakeen laguntza falta nabari zaie. Honen adibide dira, Subiza eta Amaya taldeen aurka lortutako berdinketak.

Bestalde, futbol taldeak berak barne egituraren ere aldaketak egin ditu. Miguel Bikuña tal-

de arduradun berria fitxatzeaz gain, denboraldi honetan beste zazpi aurpegi berri egonen dira Arkiskileko soropilan. Aurreko denboraldian zeuden zortzi jokalarik taldea utzi dute.

### Amaiera bikaina Mikel Nievek

Mikel Nieve Leitzako txirrindulari gazteak amaiera bikaina eman dio denboraldiari. Irailaren 15ean Altsasun egin zen urteko azken txirrindulari ekitaldian garaipena eskuratu zuen. Horrez gain, hurrengo denboraldian Orbeako txirrindularia izango denak, beste hiru garaipen lortu ditu 2006-2007 ikasturtean. Aipagarrienen artean, Eibarren egindako Valenciaga sariketa eta Kataluniako Llobregaten lortutakoa. Gohierriko eta A Coruñako itzulietako bigarren postuak ere bereak izan dira.

### Negozioak sortzeko laguntza

Cederna Garalurrek negozio propioa martxan jarri, enpresan aldatetarako egin edo herriaren bertan lan egin eta bizi nahi dutenentzako laguntza eskainiko du. Informazioa 617 609328 telefonoan (Elena).



ARGAZKIAK: JOSEBA URKIOLA

### Aurrera Kirol Elkartearen eguna

Irailaren 22an euriak lagundu ez arren, Aurrera Kirol Elkarteak ez zuen bere egun bereziaz ospatu gabe utzi. Eguerdiko parterako iragarritako zeuden pilota partidak kenduta, egitarauan aipatutako ekintza guztiak egin ziren. Eguneko unerik gorenena bazkaltzerakoan izan zen, 150 pertsona inguru bildu baitziren. Honekin batera, egun osoan herritar ugari gerturatu zen Aurrerak duen egoitzara, ikusgai zeuden argazki eta dokumentu zaharrek jendearegan interes handia piztu baitzuen.

**Lanchas**  
 PARKETAK - TARIMAK  
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
 ESTALDURA OROKORRAK  
 Bera - Tfnoak 948 630 735 - 407 406 781

**Mailposta Buzoneos**  
 Leitzako bidetza, DONEZTEBE • 948 592 313  
 inprimategia  
 publizitatea  
 diseinu grafikoa

**t tipi**  
**t t a p a**  
 (0034) 948 635458

## HAUTESKUNDEAK

# Arano, Donamaria, Oitz eta Legasan hauteskundeetara zerrendak aurkeztu dira

Zubietan ez da talderik aurkeztu, ezta Narbarte eta Oierregiko kontzejuetan ere

## ttipi-ttapa

Maiatzaren 27ko udal hauteskundeen ondotik eskualdeko Herriko Etxe gehienetako alkate eta zinegotzi karguak erabaki ziren. Baina zenbait herritan ezin izan zuten Udala osatu, hautes zerrendarik aurkeztu ez zelako. Ordezkaririk aukeratu ez zuten udal eta kontzejuak bigarren aukera izanzen dute heldu den urriaren 28an. Hauteskunde hauek zerrendak aurkezteko epea joan den astelehenean akautu zen. Eskualdean, lau izan ziren Udala osatu ez zuten herriak, hiru Malerrekan eta bat Leitzaaldean: Donamaria, Oitz, Zubietan eta Aranon. Horretaz gain, Bertizaranan, Legasa, Nar-

barte eta Oierregiko kontzejuak ere hutsik gelditu ziren. Eta deialdi berrian Legasan bakarrik aurkeztu da zerrenda. Urriaren 28ko hauteskudeei begira, Arano, Donamaria eta Oitzen zerrenda bana aurkeztu da, Zubietan, aldiz, ez da hautagairik izanen. Hala, egoera moldatzen ez bada, hurrengo hilabeteetan Nafarroako Gobernutik izendatuko dute Zubietako Udala gestionatuko duen batzordea.

Donamarian, gaur egungo alkatea, Ricardo Sagaseta Andiarrena izanen da zerrendaburua eta beraz, karguan segituko du legealdi honetan. Aranon eta Oitzen zerrendak irekiak direnez, boto gehien ja-

sotzen dituen hautagaia izanen da alkatea.

Egun berean, eginen dira kontzejuetako hauteskundeak ere, batzordeko lehendakariaren eta lau bokalen aukeraketa, alegia. Bertizaranan, kasuan, aipatu bezala, Legasako kontzejurako bakarrik aurkeztu dute zerrenda, Legasako Elkartaldean. Narbarte eta Oierregiko kontzejuetan, ordea, lan egiteko ez da inor aurkeztu.

Nafarroa osoko datuak aintzat hartuz, maiatzean zerrendarik aurkeztu ez zen 29 udalerrietatik 16tan ez da oraingoan ere aurkeztu. Kontzejuetako dagokienez, 121 kontzejuetatik 24tan aurkeztu dira hautagaiak.

## ARANO

### Herriaren Alde (HA)

1. Iñigo Larrea Perurrena. 2. Juan Manuel Leonet Claver. 3. Itziar Loiarde Uitz.

## DONAMARIA

### Herriarengatik

1. Ricardo Sagaseta Andiarrena. 2. Santiago Jorajuria Mitxeloren. 3. Jose Miguel Lasaga Telletxea. 4. Fco Javier Migeltorena Juanena. 5. Iñaki Telletxea Goñi. 6. Iñaki Baleztena Agerralde. 7. Angel M<sup>a</sup> Larburu Calzado.

## OITZ

### Oizko Alkartasuna

1. Javier Ariztegi Juanena. 2. Jose M. Lataza Apeztegia. 3. Luis M. Mindegia Mitxeo. 4. Andres Oteiza Lizasoain. 5. Alberto San Miguel Mindegia.

## LEGASA

### Legasako Elkarte

1. Laura Andresena Zubigarai. 2. Aitor Zelaieta Mikelarena. 3. Asier Irisarri Martiarena. 4. Iban Urriza Arretxea. 6. David Andresena Ariztegi.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



## BAZTAN

### Amaiurko monolitoa berreraikitzearen 25. urteurrena ospatuko dute urriaren 12an

Oroitariaren ondoan lore eskaintza egingen dute Gazteluan borrokan hil zirenak gogoan

#### ttipi-ttapa

25 urte pasatu dira Amaiurko Gaztelu mendian 1522an Nafarroako Erresumaren alde borroka egin zutenak omentzeko monolitoa berreraiki zutenetik. 1982ko urrian izan zen hori, 1932an hondatu zena ordezkatu zuena, hain zuzen.

Egun hura gogoan, inauguratu zutenetik 25 urtera, besta eguna izanen dute heldu den urriaren 12an Amaiurren. 11:45ean herriko plazatik abiatuta Gaztelurako bidea egingen dute, gaitero eta txistulariekin. 12:00etan emanen diote hasiera ekitaldi nagusiari, oroitarriaren on-

doan omentzeko ekitaldi bat eginez. Han izanen dira txalapartariak, aureskua ere dantzatuko dute eta Gaztelu Taldeak kantatu. 1522an Amaiurko Gazteluan hil zirenak gogoan lore eskaintza ere egingen dute. 13:00etan Baztango mutildantzak dantzatuko dituzte, eta ondotik, 14:00ak aldera, herri bazkaria egingen da plazan. Bazkariko txartelak eskuratzeko Nafarroako Kutxara jo behar da, eta 30 euroko sarriera egin. Ortziralean, hilak 5, bukatuko da ize-na emateko epea, eta egunean berean bantketxeo agiriaren truke emanen dira.



ARTXIBOA

Amaiurko oroitarria 1522an Nafarroako Erresumaren alde borrokatu zutenak omentzeko eraiki zen.

#### Ezbeharrak Gorramendin eta Erratzuko Meakan

Iraileko azken ortzilerian, Gorramendiko mendian Baionako sei gazte galdu ziren lainopean. Goizeko 3ak aldera telefonoz laguntza eskatu zuten eta Foru Polizia, Oronozko suhiltzaileak eta Guardia Zibila euren bila gan ziren. Bi gazte 20 metroko amildegi batetik erori ziren; bat kamilaz aterra behar izan zuten eta bertze bere kabuz lepoko jarrita. Oztopoak

tarteko—helikopteroak zailtasunak zituen eguraldi txarrarekin—16:00ak aldera lortu zuten handik ateratzea.

Bertzalde, Erratzuko Meakan 62 urteko gizon frantziarra bihotzekoak jota hil zen. Lagunek larrialdietara deitu zuten, baina medikuak ailegatzera ezin izan zuten deus egin. Helikoptero bat hurbildu zen, erreskatean parte hartzeko.

#### Margo lehiaketa Arizkun

Arizkungo Xubiltz taldeak antolatuta margo

lehiaketa egingen da heldu den urriaren 28an. Margoak kanpoan, aire librean, marraztu behar dira eta *udazkena Arizkun eta Baztangoizan* izanen da gaia. Irabazleak 600 euroko saria eramanen du. Lehiaketa 15 urtetik goitikoentzat dago zabalik eta 10:00etan emanen diote hasiera ekitaldiari. Izena egunean bertan eman behar da, ordu bat lehenago. 14:30ean artistek bazkaria egingen dute, eta 17:00etan sari banaketa Xubiltzen egoitzan.

**POTTOKI**  
Baztanberrri Plaza, 3 - behea  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfnua: 948 581 983  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com  
Astlehenerdik larunbatara:  
9:30 - 13:30  
16:30 - 20:00

**ANTIXITONEA**  
Trinketea  
Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea  
Menu Bereziak  
Braulio Iriarte karrika  
ELIZONDO  
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

**SOULE**  
hileta artea  
Tfnua: 948 453 444  
Mug: 918 999 083  
Arizkun

**MENDIALDE**  
Jatetxea  
T: 948 453 060  
N: 121-8, 66 km  
I. AMAIUR

**BAZTAN**  
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

**PREZIO LEHIAKORRAK**  
Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO  
T. 948 580 289 • F. 948 452 367  
M. 649 438 210

## BAZTAN

# Bidelagun jardunaldia egingen da ortziral honetan Elizondon

Leku diferenteetako boluntarioek esperientziak trukatu dituzte

**Maite OTEIZA**

*Bertzelako mundua posible da* izenburupean Bidelagun jardunaldia egingen da ortziral honetan Elizondon. Arizkunenea Kultur Etxean gizartearen ekintza solidario eta eraldatzaileari buruz gogoeta egin eta laguntzailaren parte hartzea bultzatu nahi dute, esperientziak trukatzearekin batera.

Bidelagun Elkarte adineko jendeari laguntzeko boluntario taldea duela zortzi urte sortu zen Baztanen eta gerotzik, eguneroko lanaz gain, arlo ezberdinen inguruko hainbat jardunaldi antolatu ditu. Ortziral honetakoa, berriz, parte hartu nahi duen ororentzat irekia izanen da, eta goiz eta arratsaldean izanen da.

Egitarauari dagokionez, 10:30ean aurkezpena egingen da. 11:00etan Madrilgo Entrevias parrokiako Javier Baezak solasaldia eskainiko du. Eguerdian

kafea hartzeko atsedenaldia hartuko dute eta 12:30ean esperientzia trukaketa egingen dute Irungo Behar-Bidasoa erakundeko Agustin Ugarte boluntarioak, Lazkakoko Eguneko Zentroko Joseba Alkorta gizarte langile eta zuzendariak eta Elizondoko Herrera Etxeko Mari Jose Mortalena Bidelaguneko boluntarioak. Ondotik, bazkaria Eskisaroi jatetxean.

16:30ean berriz ere esperientziak trukatzeko txanda izanen da. Oraingoan, Madrileko Entzuteko Zentroaz ari tuko da Teresa Agirre, Osasuna Humanizatze Zentroko kidea; Iruñeko Dolua laguntzeko taldeaz Rakel Mateo, Senda Fundazioko orientatzailea eta Mutiloako belaunaldi arteko kanpaldiei buruz Olga Carrasco, Amma erresistentziako eragile soziokulturala. 17:30ean Bidelagun web orriaren aurkezpena egingen da



ARTXIBOA

## Donibane Lohitzuneko itsas rallya

Duela bi aste, larunbatarekin, ohiturari jarraituz, 1912-1960 arteko 80 kotxe hurbildu ziren Donibane Lohizunetik Zigara. Etxezurrian haiaiketokoa hartu eta herriko elizara bisita egin ondoren, Ainhoarat abiatu ziren bazkaltzeko tenorerako, berriz ere Donibane Lohizunera itzuliz, arratsaldean. Biharamunean, bertan kotxe erakusketa eta rallya antolatu zen, aintzineko kotxezaleen gozamenerako.

eta 18:00etan akabaila ekitaldia.

## Zabortege berria Zozaiaren eraiki lezakete

Zabortegeien gaia aspalditik dabil guztien ahotan. Europako arautegi berriak dioenez, zaborrak birziklatzeko planta bereziak sortu behar dira, gaur egun irekiak dauden zabortegeiak ixteko, ingurugiroan sortzen diren arazoengatik, kutsadura...Dagoeneko hauen itxierak daita du, datorren urriaren 31. Baina gure eskualdean planta berezi hori

non kokatuko den erabakitze dago. Bertan Bortzirriak, Malerreka eta Baztango zaborrak bilduko dira. Hasieran Donezteben egitekoa zen, geografikoki tarteko puntua delakotz, baina azken unean Zozaiako Xolborro harrobi zaharrean egiteko asmoa indartu da. N-121A errepidearen bazterrean dago eta Iruñerriarekin ongi komunikatua.

## Elbeteko bestetako zenbaki sarituak

Elbeteko bestetako zozketan saritutako zen-

bakiak jakinarazi dituzte: Lehenbiziko saria GPS bat 3.573 zenbakiarentzat; bigarrena, minikadena bat 5.870 zenbakiarentzat eta hirugarrena, Autxixiko bi gasna 2.147rentzat.

## Alkoholiko Anonimoak-en irekiera ekitaldia

Lerro hauen bidez, Alkoholiko Anonimoak Elkarteak gogorarazi nahi du ortzegun honetan, hilak 4, egingen dela talde sortu berriaren aurkezpen ekitaldia. Arizkunenean izanen da, 19:30ean.

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa

Erakuntza  
Hirigintza  
Udal-aholkularitza

Celia Lana Ranz  
Huarte Gotzal 7 - 31880 Leitza  
645008478 tel

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**ARMUA**  
Jatetxea

Tel:  
948 599 131

Legorretatik 3. km  
URDAZUBI

Carlos  
Garaikoetxea  
Etxenike  
abokatu

Tfno.: 948 581 463  
Mug.: 630 354 818

Santiago, 59 2C  
ELIZONDO

Toailak-Manteleriak-Oheko mairidreak,  
Eskolako haurren mantalak etab...  
bordatzen ditugu

Hemiko bestetarako, kamisetak, eta blus  
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin  
bordatzen ditugu

Elerru Plz. Berriz 4ra eta ikusi bertako erakintze!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

**Haitzetxea Landa Etxea**

AISIALDIA

ZUGARRAMURDI  
Tel: 670484567  
687421445

www.haitzetxea.es

## BAZTAN

# Gartzaingo bestak urriaren 11tik 14ra izanen dira

Lehenbiziko egunean herritarren arteko duatloi desafioa jokatu da

### Ortzegune 11 Bezpera

**12:00etan** besten hasmenta kueta gain-behera botaz. **13:00etan** zorro betetzia Fransenen. **16:00etan** herrikoen artian duatloi desafioa. **17:00etan** mus zimizte. **21:00etan** Baztan zopak trinketian. **Ondotik** dantzaldia JALISKO BANDekin. **Goizaldean** gosarie apezan etxian.

### Ortzileria 12 Pilarike Egune

**10:00etan** argi soi-nuak. **12:00etan** meza Ariztegiko ermitan, eta gero luntxa. **14:00etan** gazte bazkarie Aizanoko labaderuan, Biotesek alaituta. **18:00etan** zerrikume arpatzia eta futbol partida. **20:00etan** triki-bertso poteoa. **Ondotik** dantzaldia Salaberriekin. **21:30ean** mutil dantzak. Segidan patata tortila jatia. **00:00etan** dantzaldia SALABERRIekin.

### Launbeta 13 Herritarren Egune

**10:00etan** argisoi-nuak. **14:00etan** zikiro jatia eta trofeo banaketa. **Ondotik** dantzaldia Mikel Salaberriekin. **22:00etan** mutil dantzak eta luntxa. **00:00etatik aitzinera** dantzaldia SALABERRIekin. **Goizian** goiz salto lehiaketa.

### Igendia 14 Haurren Egune

**09:00etan** alkoholemia plazan, gehien ematen duenak gosarie debalde. **09:30ean** gosaria Fransene ostatuan. **12:00etan** Meza Nagusia Gartzaingo parrokien. **17:00etan** txokolatada. **Ondotik** Gorriti eta bere aziendak. **18:00etan** kantaldie. **19:00etan** dantzaldia SALABERRIekin. **22:00etan** mutil dantzak eta ondotik afarie. **00:00etan** GAIZUA NI eta besten azken hatsa.



ARGAZKIAK: IOSUNE ETXENIKEK UTZITAKOAK

Joan den urtean bezala, aurtengo bestetan ere ez da umorerik faltako.

*Maderas*  
**GOMEN**  
Tel: 948 580 645  
Zaldubia Industrialdea  
IRURITA

- Era guzietako atepak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

BAR-OSTATVA  
MON

ZATOZTE  
TRAGOA  
EDATERA

ESTANCO - TERECO DENDX  
ANZEN-BORDX  
VRØDX - VRØKZYBI

## SARA

# Herriko bestak ederki iragan dira

Igande arratsaldean plaza jendez gainezka izan zen

## Xan HARRIAGUE

Aro ederra lagun, herritar eta kanpotar anitz hurbildu zen herriko bestetara. Larunbatean inguruetako gazte anitz etorri ziren eta 2.200 bat sartze egin ziren. Egunik arrakastatsuen, du-darik gabe, igandea izan zen. Ahate jokoa, herri kirol saioa eta karroen desfilea ikusteko plaza ikuslirrez bete zen. Gaineratiko egunetan ez zen girorik falta, baina aste egunak izaki asteburuan baino jende guttiago ibili zen.

Herriko besten kari, hainbat txapelketa jokatu ziren. Larunbateko lasterketan Ramuntxo Lamothe nagusitu zen 12 kilometroko ibilbidea 38 minutu eta 38 segundotan eginez. Emazteetan azkarrena, Mantale taldeko Cristina Arues izan zen, 46 minutu eta 28 segundoko denborarekin. Astelehenean iragan zen artzain zakur txapelketan trebeena Iholdiko axeritogarai eta bere zakurra izan ziren. Bigarren postua Irikinentzat izan zen, eta hirugarrena eta laugarrena Parraxu eta Irigoienentzat, hurrenez hurren. Asteazkeneko azizien txapelketan usaian baino abere gehiago aurkeztu ziren, bai behi gorrietan, bai Bretoinetan baita ardiatan ere. Behi gorrietan Frederic Mariluzek irabazi zituen lehen sari gehien, 6 eta 9 hilabete artekoetan, 4

urte baino gehiagokotan eta helduetan. Pierre Ariztegi eta Auxtin Gorrozetak bertze bina sari eraman zituzten, lehenak, 9 eta 12 hilabete artekoetan eta aretxearekin ziren kategorian, eta bigarrenak, 12 eta 18 hilabete artekoetan eta 2 urte baino gehiagokotan. Bretoin edo esneko behien txapelketan lehen sari gehien irabazi zituena Geroari izeneko ustiapena izan zen (Battit In-dart, Antton Andiazabal, Benat Azcarraga eta Felix Berhau), 12 eta 18 hilabete artekoetan, lehentzetan, eta antzuetan. Mugan ustiapenak (Tote eta Xalbat Elizagoien) bi lehen sari eskuratu zituen 3. eta 6. aretxea izan zutenetan. Gainerako bi sariak Lagunarte ustiapenentzat (Mixel Errandonea eta Jean Yves Zunda) eta Tatién Mendiondentzat izan ziren, 12 eta 18 hilabete artekoetan eta 3. aretxea izan zutenetan. Ardien txapelketan 3 kategoria izan ziren: bildotsetan lehen saria Patrick Iribarrenentzat; 2 urtekoetan Anaiak ustiapenentzat (Mikeltegikoborda), eta helduetan Dominique Zundarentzat.

Pilotan, Olivier Larretxeak eta Thierry Etxetok irabazi zuten Pleka Saria, finalean Ellande Alfaro eta Patrick Ocafraini 50 eta 31 nagusituta.



ARGAZKIA: JEAN PIERRE LEMOINE

Plazaratu baino lehen karroen desfilea herrian barna ostatuz ostatu ibili zen, gazteek prestatu zituzten jantziak soinean zituztela.

## Sarako mendi bizikleta ibilaldia

Joan den igandean zortzi iragan zen herriko turismo bulegoak antolatzen duen mendi bizikleta ibilaldia. Aurten bi ibilbide prestatu zituzten: motza (25 kilometrokoa), eta luzea, 45ekoa. 230 bat txirindularik hartu zuten parte; bertze behin ere arraskata handia.



ARGAZKIA: JEAN PIERRE LEMOINE

Gizonen artean Axeritogarai nagusitu zen

## Bake hitzordua

Bake Hitzordua, eskualdeko eta Europako bakearen aldeko bigarren jaialdia herrian iraganen da urriaren 6tik 12ra. Horren kari, Bakea Bai elkarteak hainbat ekitaldi prestatu ditu bakea gaiaren inguruan hainbat artisten bitzeko: margolariak, zizelkariak, dantzariak... Larunbatean aurtengo ediziooko ohorezko presidente Roger Etxegarai Kardinalak jaialdiari hasiera emanen dio. Hortik aitzinera, hainbat ikastaro, kantaldi, hitzaldi eta erakusketa iraganen dira. Erakusketari dagokionez, 130 artisten obrak ikusgai izanen dira, Lur Berrin, Herriko Etxean, Omordian eta La Posten. Zehaztasun gehiago 0033 559 411363ra deituta.

www.myspace.com/biribil

**biribil**  
Areton - Diskoteka

**Etor zaitetz Oiartzuna larunbat gauetako giro berriaz goatzera**

**19 € sarrerarekin barra libre larunbatero**

Sounds mixed by MATELEKIM:  
The Clash, Hertzainak, The Ramones, Jotakie, Coldplay, Piperrak, Rage Against The Machine, Delirium Tremens, Red Hot Chili Peppers, Kortatu, Stiff Little Fingers, Barricada, The Killers, Banda Bassotti, Delt Punk, Klaxons, LCD Soundsystem, Beastie Boys, Nirvana, Kurais, The Strokes, B-S2's, Bloc Party, The Rapture, III, Vitalic, Justice, Arctic Monkeys, Berri Txarrak, Soufwax, Joy Division, Tigo, Matkrft, Beck, Negu Gorriak, Gorillaz, Penin Muguruza, Franz Ferdinand, Digitalism, The Smiths

Biribil Areton - Pagoaldea Poligonoa 15 - Ergoien Auzoa - Oiartzun

## ZUGARRAMURDI

# Uholdeek kaltetutako Uraundi eta Eltsospeko zubiak berritu dituzte

Bi toki hauetan zola berritu da zimenta emanez



### Margari eta Koro

Maiatzeko uholdeak hondatu zuen Madaria auzorako bidean lanean aritu dira hilabete honetan. Uraundi eta Eltsospeko zubiak berritu dira, zabalduz, bazterretan babesa emanez, eta bi metroko diamentroa duen tubo jarritz. Bi toki hauetan ere zola berritu da zimenta emanez (Uraundin zimenta kanpamentueta-ko bidegurutzearaino eman da). Lan hauek egin ahal izateko hiru egunez itxita egon da bidea. Gisa berean, gainetako zolan breia emateko intentzioa dago.

### Obrak herrian

Udazkeneko sasoi honetan malobra haundiak ikusten ari dira herrian: Barrantxean, Etxegian, Iparrean eta Martinean teilatutako moldatzen ari dituzte, eta *Etxabe tailerran* guztia berritzen ari dira.

### Ikastaroak

Uda alde batera utzi, eta lanean hasteko tenorea da. Gure zonaldean hainbat ikastaro antolatu dituzte:

Alde batetik, dantza ikastaroa, haurrentzat. Izena Saran eman behar da. Bertzetik, trikita eta pandereta ikastaroa ere antolatu da. Izen-ematea 618 963390 telefonoan egin beharko da. Informatika ikastaroan hasteko 948599065 telefonora deitu behar da, eta Kenpo-Kai ikasten hasteko 656759566 telefonora.

Rural Kutxan Gordailu Berezia

Badaude aurrezkirako produktu ugari errentagarritasun altua eskaintzen dutenak, baina segurtasunik gabekoak. Bertze batzuk, segurtasuna dute, baina duten errentagarritasuna ez da sobera interesgarria. Rural Kutxan posible da errentagarritasun altua eta segurtasun osoa lortzea.

INBERTSIOAREN %40	INBERTSIOAREN %40	INBERTSIOAREN %20
% 6,50	% 6,50	% 18
6 hilabeteko epean	12 hilabeteko epean	36 hilabeteko epean <sup>(*)</sup>
T.A.E. %4,00	T.A.E. %4,50	T.A.E. %4,67

(\*) Errentagarritasun hau lortuko da azken errenterentzian muga segunean 5 akzioen kotizazioa pare edo handiagoa bada hasierako errenterentzia datan zuena baino. Akzioak: Telefónica, BBVA, Iberdrola, Repsol eta Inditex. Hasierako errenterentzia modura hartuko da 5 akzio hauek 2007/10/19 eta 2007/11/19 arteko epean duten kotizazio balorenik altxatuta. Azken errenterentzia 2010/10/19an akzioek duten kotizazio balorearekin izanen da.

nire aukera

**NAFARROAKO RURAL KUTXA**

2007ko urriaren 17a bitarte baloreko duen eskaintza, Nafarroako Rural Kutxan duten aurrezki gaitarren maila handitzen duten pertsonentzat.

www.rural Kutxa.com  
Tel: 943 016 855

## AZPIEGITURA

# Gobernuak 607.298 euroko laguntza banatuko du eskualdean

Argiteria, hilerriak, ur-depositoak edo Herriko Etxeak moldatzeko

## Franck DOLOSOR

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentuak Nafarroako mendialdean egin beharreko azpiegitura lanetarako 755.678 euroko dirulaguntza onartu du, Toki Azpiegitura Planaren barrenean. Gure eskualdeko zazpi herri ere jasoko dute laguntza. Horrela, egin den 981.607 euroko gastuaren %50a baino gehiago diruz lagundua izanen da, 607.298 euro, hain zuzen. Kasu gehienetan, argiteria, hilerriak, ur-depositoak edo Herriko Etxeetako obrak moldatzeko dira onartutako laguntzak.

**Elizondon**, Braulio Iriarte eta Jaime Urrutiako argiteri publikoa moldatuko da, 71 farol berri jarritz. 95.360 euroko inbertsioa egingen da, eta Nafarroako Gobernuak 66.270 euroko laguntza emanen du.

**Goizuetan** ere argiteria berrituko da Apeztexea karrikan, 16 fa-



ARTXIBOA

**Narbarteko ur depositu berriak Legasa eta Narbarterako ura banatuko du.**

rola paratuz. 18.514 euroko gastua egingen da eta Iruñetik 12.960 euroko subentzioa jasoko da.

**Beintza-Labaienen** hilerri berria egingen da, 1.271 metro koadro dituen lur eremu batean. Hilerriak berak, 900 metro koadro hartuko ditu eta ur-hartzea eta euritako uren saneamedu sarea izanen ditu. Euritik babesteko 15 metro luze eta 6 zabal izanen dituen tejabana ere egingen da. Lanen aurre-

kontua 198.236 eurokoa da eta dirulaguntza, 82.998 eurokoa. Beintza-Labaienen bertan, Herriko Etxeko teilatua moldatzeko eta isolamendu eta kalefakzio sistema berritzeko 59.173 euroko gastua egingen da eta 41.221 ko laguntza hartu.

**Urrotzen** ere argiteri sarea berrituko da Utsala Bidean eta Leurtzako Etorbidean. 22 farola berri paratuko dira eta aginte-zentrua ere eraberrituko da. Gober-

nuak 40.498 euro eman ditu, 57.854 euroko inbertsiorako.

**Bertizaranaren** kasuan, **Narbarten** 400 metro kubikoko ur-deposito berria egingen da. Lanen aurrekontua 383.363 eurokoa da eta Iruñetik 264.386 euroko laguntza hartuko da. Halere, lan honek 33.045 euroko laguntza osagarria izanen du. Legasa eta Narbarterako ura banatuko da deposito honetatik, eta ura eramateko eta egungo sareari lotzeko hodiak ere paratuko dira.

**Oieregiko** kontzejua etxea moldatzeko 169.107 euroko gastua egingen da eta 65.920 euroko laguntza hartuko da horretarako. Teilatua erabat berritu behar da, baita barnealde osoa ere. Aitzinaldeak eta etxearen egituraren zati batek ere moldaketak behar dituzte. Kontzejuko bilerak beheitiko solairuan egiten dira eta lehen solairuan etxebizitza dago.

## TEKNOLOGIA

## Iberbandak Internet zerbitzurik gabe utzi du Nafarroako mendialdea

### ttipi-ttapa

Iberbanda enpresak banda zabaleko Internet zerbitzua eskaintzen du uhinen bidez. Baina irailaren 5az geroztik zerbitzua hagitz kaxkarra da eta hainbat udaletxe, kultur etxe, enpresa, komunikabide eta partikularrek ezin dute Internet erabili. Iberbandak zerbitzua berriz ere martxan noiz jarriko duen zehazten ez duela ikusita, erreklamazio kolektiboak egiteko deia egin zuten Etxalarko Udalak eta Gizarte Ongizate, Hiri-Hondakin eta Euskara Mankomunitateek. Enpresaren erantzunaren zain, kaltea gero eta nabariagoa da erabilitzaileengan eta dagoneko Nafarroako Parlamentuan ere Gobernuari arazo honen berri baduen galdera eginga da.

**ZOANSA**  
 MARKA GUZTEN KONPONKETA  
 Banarta, 2 - Alkalaga Industrialdea  
 LESAKA (sarrera Beratik)  
 Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA  
 300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...  
 Euskal Herriko preziorik hoberenak  
**EGUNERO IREKIA**  
 Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI



## EZKONTZAK

**Jon Azkarate Ugalde** eta **Elena Eraso Arregi**, Iruritakoa eta Doneztebekoa, irailaren 1ean Legasan.

**Jabier Castro Dominguez** eta **Ainara De Miguel Berasategi**, Usurbil eta Leitzakoa, irailaren 8an Leitzan.

**Daniel Alkorta Rodriguez** eta **M<sup>a</sup> Edurne Oronoz Zubillaga**, Leitzakoak, irailaren 15ean Leitzan.

**Asier Iturralde Oskaritz** eta **Silvia Ezkurra Arretxea**, Berakoa eta Sunbillakoa, irailaren 15ean Sunbillan.

**Iñaki Endara Petrirenea** eta **Aintzane Rodriguez Errandonea**, Berakoa eta Donostiakoa, irailaren 15ean Beran.

**Borja Imaña Gordillo** eta **Idoia Estonba Bergara**, Donostiakoa, eta Irungoa, irailaren 15ean, Beran.

**Andres Irujo Quiroga** eta **Amalia Gonzalez Iribarren**, Iruñea eta Elizondokoa, irailaren 15ean Elizondon.

**Christian Raphael Oliver** eta **Juli Laborra Fagoaga**, Erresuma Batua eta Iruñekoa, irailaren 8an Iruritan.

**Ricardo Altzuguren Gastesi** eta **Maria Lopez Uriz**, Elizondokoak, irailaren 8an Lekarotzen.



## SORTZEAK

**Uxue Armendariz Aizkorbe**, Sunbillakoa, abuztuaren 28an.

**Orlando Marian Ghibano**, Doneztebekoa, irailaren 13an.

**Inhar Altadiñi Lazkano**, Leitzakoa, irailaren 11n.

**Saioa Montero Arrizurieta**, Leitzakoa, irailaren 12an.

**Joar Merino Iparragirre**, Leitzakoa, irailaren 14an.

**Leire Legasa Goia**, Lesakakoa, irailaren 14an.

**Ekain Arrupea Iribarren**, Lekarozkoa, irailaren 8an.

**June Urrutia Erize**, Iruritakoa, irailaren 9an.

**Jon Gonzalez Galarregi**, Elizondokoa, irailaren 11n.

**Natalia Roque Agilera**, Elizondokoa, irailaren 15ean.

**Ibai Mellado Odriozola**, Arraiozkoa, irailaren 14an.

**Iker Etxeberría Jaunarena**, Arizkungoa, irailaren 15ean.

**Mateo Lertxundi Florez**, Elizondokoa, irailaren 14an.



## HERIOTZAK

**M<sup>a</sup> Cruz Amorena Nikolarena**, Elizondokoa, irailaren 9an, 79 urte.

**Juana M<sup>a</sup> Gamio Etxenike**, Iruritakoa, irailaren 14an, 91 urte.

**Angelita Arregi Albisu**, Doneztebekoa, irailaren 14an, 94 urte.

**M<sup>a</sup> Jose Eñeterreaga Irigoien**, Lesakakoa, irailaren 15ean, 53 urte.

**Raimundo Perez Iriarte**, Berakoa, irailaren 16an, 76 urte.

**M<sup>a</sup> Pilar Iribarren Iturbide**, Etxalarkoa, irailaren 19an, 89 urte.

**Francisco Javier Zabaleta Urkizu**, Oronoz-Mugairikoa, irailaren 18an, 65 urte.

**M<sup>a</sup> Dolores Korteia Irigoien**, Azpilkuetakoa, irailaren 18an, 83 urte.

**Eladio Altugarai Arburua**, Lesakakoa, irailaren 19an, 94 urte.

**Xabino Lartzabal Balerdi**, Igantzikoa, irailaren 19an, 57 urte.

**Gregorio Ordoki Leiza**, Arantzakoa, irailaren 19an, 51 urte.

**M<sup>a</sup> Pilar Mutuberria Oskoz**, Arantzakoa, irailaren 20an, 63 urte.

**Jose Leiza Olasagasti**, Lesakakoa, irailaren 21ean, 59 urte.

**Mattel Azkarate Etxenike**, Lekarozkoa, irailaren 23an, 59 urte.

**M<sup>a</sup> Rosario Iribarren Salaburu**, Oronoz-Mugairikoa, irailaren 24an, 79 urte.



### Raimundo PEREZ IRIARTE

Beran hil zen 2007ko irailaren 16an, 76 urte zituela  
GOIAN BEGO

*Umorez eta alaitsu  
egoten ginen elkarrekin,  
eta oroitzapen ahaztezin horiek  
beti geldituko dira gurekin.*

Gure saminarekin bat egin duzuen eta bere aldeko elizkizunetan parte hartu duzuen guztiei, MILA ESKER.

**FAMILIA**



### Xabino LARZABAL BALERDI

Lurdes irakaslearen aita

Igantzín hil zen, 2007ko irailaren 19an

*Momentu latz hauetan  
famiaren atsekabearekin  
bat egiten dugu.*

**IGANTZIKO ESKOLAKO IRAKASLEAK,  
IKASLEAK ETA GURASOAK**



### Xabino LARZABAL BALERDI

Igantzín, 2007ko irailaren 19an

*Zure izateko moduaz erakutsi diguzu  
gizon ona, langilea eta alaia  
izatea zer den.*

*Gogoratua dena hiltzen ez delako  
etxekoan artean, zu beti bizirik.*

**ZURE EMAZTEA ETA SEME-ALABAK**



**Antonio JAUNARENA** Zubietako aizkolaria

ARTXIBOA

- Leitzan bizi den Antonio Jaunarena Zubietako aizkolaria 52 urterekin lortu du berriz Lehen Mailako aizkolariekin aritzeko aukera.

- Irailaren 16an Altsasun jokatu zen Bigarren Mailako Aizkolaritza Txapelketan jaun eta jabe zela erakutsi zuen, eta bigarren sailkatu zen Luis Mari Belarrari 44 segundoko aldea atera zion.

- Lau urtetan aizkora aritu gabe egon da, baina tarte horretan aizkora mundua hain hurbiletik segitu izanak berriro ere aizkora aritzeko ilusioa eta gogoia ekarri dizkio.

## «Oraindik badut Lehen Mailan ariko naizen pentsatzeko denbora»

**Gurutze PIKABEA**

35 urte pasatu dira Antonio Jaunarena Zubietako aizkolaria plazan bere lehen aizkorakadak eman zituenetik. Baina oraindik sasoiko dagoela erakutsi du Bigarren Mailako Aizkolaritza Txapelketa irabazita. Altsasun jantzi zuen txapela Jaunarenak, baita jaun eta jabe zela erakutsi ere, bigarrenari 44 segundoko aldea ateraz. Bigarren Mailako Txapelketa irabazita hurrengo urtean Lehen Mailan aritzeko aukera izanen du. Oraindik, ordea, zer egin erabaki gabe duela aitortu digu: «Oraindik urtea luzea da eta pentsatzeko denbora badut». Momentuan aizkora gozatu nahi du, eta «aritzeko gogoz» dago, gainera. Lehen Mailako Txapelketa gogoan, berehala aitortu digu nork irabaztea gustatuko litzaiokeen: «Jon Rekondok». (Elkarrizketa kanporaketa baino lehen egin zen).

Lehen ere urte aunitzetan ibilia da Lehen Mailako aizkolarien artean, «20 bat urte», dio Antoniok. Txape-

**«Lau urtez aizkora aritu gabe egon naiz, erakustaldi gutxi nituelako, eta txapelketa gutxi izanda, horiengatik urte osoan entrenatzeak merezi zuen ez dakit»**

lik irabazi ez arren, orduko oroitzapen onak omen ditu. Baina bere erabakiz, lau urtetan aizkora aritu gabe egon da. Horren arrazoia zein den galdetuta, zera erantzun digu: «Erakustaldietara joan behar denean, gogo eta ilusio gehiagorekin entrenatzen da, eta azken aldi hartan oso erakustaldi gutxi egiten nituen. Txapelketak urtean gutxitan izaten direnez, horiengatik urte guztian aritzeak merezi zuen ere ez dakit...». Eta zergatik itzuli den berriro aizkorara? Ba lau urte horietan ez delako aizkoratik urruti ibili: «Jon Rekondo entrenatzen ibiltzen naiz eta Juan Telletxearekin ere asko. Eurek ikusita, gogoia etorri eta horregatik hasi naiz».

Garraiolaria da Jaunarena, baina horrek ez omen dio entrenatzeko denbora aunitzik kentzen: «mendan ibiltzen nintzenean gehiago nekatzen nintzen eta ez nuen entrenatzeko gogo askorik izaten. Kamioiarekin gutxiago nekatzen naiz eta entrenatzeko gogo gehiago dut». Jon semea ez zaio aizkolaria atera, baina pilotan fin dabilela ikusteak poz bat baino gehiago emanen dio bai. Duela bi aste, erraterako, Altsasu eta Ametzetako txapelak jantzi zituen Jonek.

Bigarren Mailako txapela soinean kontent egoteko arrazoirik ez zaio falta Antoniok. Baina ez da hain aizkora lortu duen txapelik haundiena. Euskal Herriko Bigarren Mailakoak bizpahirutan irabaziak ditu, baita San Ferminetan binakakoak ere. Lehen Mailako finalean ere ibilia da. Txapelak bat baino gehiago, baina aizkolaritza guztien ametsa du berak ere: «Lehen Mailako txapela janztea». 52 urterekin hori zaila ikusten duela erran digu irriz, baina nork daki!



**AIZKORA**

## Larretxea eta Mindegia Nafarroako Lehen Mailako finalean

Igande honetan jokatu da Etxarri Aranatzan

**ttipi-ttapa**

Bertze urte batez, Nafarroako Lehen Mailako Aizkolari Txapelketak eskualdeko ordezkariak izanen ditu: Donato Larretxea aranzarra eta Miel Mindegia Ezkurrakoa. Hauekin batera finalean izanen dira, Floren Nazabal (Etxarri Aranatz), Juan Jose Lopez (Lezaun) eta Jose Juan Barberena (Beruete) ere.

Irailaren 23an Uhar-teko pilotalekua jendez gainezka zegoela lortu zuten finalerako txartela bortz aizkolariek. Bakoitzak bi kana-erdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar izan zituen. Hiru txandatan banatuta aritu ziren, eta Nazabal eta Larretxeak jaun eta jabe zirela era-

kutsi zuten. Bi arteko lehia egon zen lehen postua, eta azkenean, guttigatik, baina Nazabal izan zen onena (14:27). Larretxeak 14:35ean bukatu zuen. Hirugarren Lopez gelditu zen (16:20) eta ondok Mindegia (17:18). Min hartuta egon ondok lehiaketetara itzuli zen lehenbiziko aldia zuen Ezkurrakoa, eta lan ona egin zuen. Barberena da Etxarri Aranzko finalean izanen den bosgarren aizkolaria (17:57).

Gainerakoan, Sesoiain I.a, seigarren gelditu zen; Vicente zazpigarren; Rekondo leitzararra zortzigarren; Senosiain II.a bederatzigarren eta Kañamares hamargarren.



Mindegia eta Larretxea, Sunbillan Ramon Latasa irabazi zutenean. Lehen Mailako Aizkolari Txapelketan hauek izanen ditu eskualdeko bi ordezkariak.

**FLASH**

**134 lagun Berako Mendi Bizikleta Itzulia**

Inoiz baino parte-hartze haundiagoarekin, 134 lagunek egin zuten Berako XV. Mendi Bizikleta Itzulia irailaren 23an. Lehia alde batera utzi eta txirindulariek hiru ibilbide izan zituzten aukeran: 28 kilometrokoa, 16koa eta 5koa ttikientzat. Ibilbide luzean 98 lagunek parte hartu zuten, tartean Patxi Vila Berako txirindulari profesionalak; eta haurretan 24k. Itzuliaren ondok, proban izena eman zuten artean bi mendi bizikleta zozketatu zituzten. Ttikietan suerteduna Joseba Mariezkurrena izan zen, eta gazteetan Pablo Moncayola. Biek ere beratarrak.

**Bengoetxea eta Barriola San Mateotako txapeldun**

Leitzan da San Mateotako Torneotako azken txapela. Joan den irailaren 23an Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriolak 22 eta 11 irabazi zieten Aimar Olaiola eta Oskar Lasari. Olaiola II.ak eta Lasa III.ak gogor ekin zioten partidari, baina berehala leitzarrek nagusitasuna erakutsi zuten, eta 2 eta 11ko partziala egin. Zortzina berdinduak ere egon ziren, baina hortik aitzinera leitzarren aldera joan zen markagailua. Partida ez zen hagitz peleitua izan, baina azkenean txapela Leitzan. Horrenbertzez, Bengoetxeak eta Barriolak elkarrekin lortu duten bigarren txapela da, Donostia Hiria Torneoan Titin III.a eta Eulateri 22 eta 11 irabazita.

**MENDIA**

## Fernando Etxegarai laugarren Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian

Podiumetik bi minutu eta erdira gelditu zen

**ttipi-ttapa**

Podiuma zapaldu gabe, baina sailkapeneko hirugarren postutik hagitx hurbil bukatu zuen Fernando Etxegarai beratarrak irailaren 23an jokaturako Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian

seigarren edizioan. Ikusmin handia sortu zuen hitzorduak eta jende aunitz hurbildu zen ibilbide inguruan.

Laugarren gelditu zen Manttale taldeko beratarrak, hirugarrenarengandik 2 minutu eta er-

dira. Guztira 4 ordu, 6 minutu eta 17 segundotan osatu zuen ibilbidea, Kilian Jornet kataluniarra irabazlea baino 9 minutu eta 18 segundoko gehiago.

Munduko Koparako sailkapen nagusirako

kontuan hartzen direnak zazpi kanporaketetako lehenbiziko lau denboraren onenak izaten dira; baina Zegama-Aizkorriren kasuan lehen sailkatutako hamar gizonen denborak hartu zituzten kontuan.

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### ERAKUSKETAK

#### URDAZUBI

Abuztuaren 22tik azaroaren 11ra, Dominique Duplantier artistaren lanen erakusketa.

#### BERA

Urriaren 3tik 7ra, *Ni ere pertsona* inmigrazioari buruzko erakusketa, Kultur Etxean (18:00-20:00).

#### ELIZONDO

Urriaren 5etik 20ra, *Larresoro-Baztan* pintura erakusketa Arizkunenean.

#### IRUÑEA

Irailaren 30etik urriaren 31ra, *Bertsotan blai* Manuel Lasarte bertsolari leitzarraren inguruko erakusketa, Tafalla Jauregian.

### IKASTAROAK

#### BERA

Urriaren, marrazketa eta pintura ikastaroa maila guztietako jendearentzako, 10 urtetik goitikoentzat eta helduentzat. Astean bi orduko ikastaroak. Izena 620719400/948630597 telefonoetan (Mathilde).

#### LEGASA

Asteazkenetan, *Arnas irakaskuntza eta terapia hats bizigarria* ikastaroa, 19:00-20:30era (619324510).

#### ARESO

Urriaren 17an Teknologia berrietara hurbiltzeko kamioi prestatua. 10:00-14:00/ 15:30-17:30.

#### GOIZUETA

Urriaren 18an Teknologia berrietara hurbiltzeko kamioi prestatua. 10:00-14:00/ 15:30-17:30.

#### NARBARTE

Urriaren 19an Teknologia berrietara hurbiltzeko kamioi prestatua. 10:00-14:00/ 15:30-17:30.

## TELEBISTAKO TXOKOA



## Euskal Artzainak Ameriketara saioa asteartetan

EGUBERRIAK BITARTE, TTIPI-TTAPAN

Ttipi-Ttapa telebista hasia da dagoeneko **Euskal Artzainak Ameriketara** izeneko telesaiok eskaintzen. Izan ere, pasa den udaberrian Kalifornia eta Nevadara joan eta hiru astez 17 programa grabatu ziren. Orain, eguberriak bitarte, han grabatutako besta eta elkarrizketak emitituko dira aste-aste. Astearte honetan, urriak 2, Bakersfieldeko euskal bestaren lehen atala eskaini zuten, eta bertzeak bertze, **Iturengo Peoieneko Ariztoi anaiak** ikusi genituen, baita **Anizko Juan Jose Azkarate** eta **Almandozko Francisco Bikondoa** ere. Heldu den asteartean, urriaren 9an, Bakersfielde-

ko bestaren bigarren atala izanen da ikusgai eta **Sunbillako Carlos Ganboa**, **Ornoz-Mugairiko Esteban Goñi**, **Elbeteko Joxe M<sup>a</sup> Torres**, **Etxalarko Rosa Olagarai** eta **Gazteluko Meltxor Grajiarena** agertuko dira, bertze hainbaten artean. Urriaren 16an emitituko den hirugarren saioa **Lekarozko Iturriria** familiari eskainitakoa izanen da, eta familiako sei kide ikusiko ditugu. Asteartetan eta asteburuko errepikapenetan ikusteaz aparte norbaitek kopiak eskuratu nahi balitu, DVDak ere jarriko dira salgai abendu aldera. Informazio gehiago 948 63 54 58ra deituta.

## DISKAK



*Esperantzara kondenatua*

GARI

ELKAR, 2007

Aspaldi abiatu zuen Garik musika munduko bere ibilbidea, eta Hertzainak taldeko abeslari ohiaren laugarrena da hau. Uda osoa estudioan sartuta pasatu ondok dagoeneko prest dauka *Esperantzara Kondenatua*, estudioko lan berria. Aitzineko diskoak bezala, berria ere Elkar argitaletxearen eskutik kaleratu du. 11 abesti ekarri ditu disko berriak eta guztiak bereak dira. Fran Iturbe gitarrajole porrokatuak zaindu ditu produkzio artistikoaren xehetasunak. Melodia atseginak, zabalak, erritmo zehatz eta kontudenteen gainean dantzan entzungai daude diskoan, interpretearen bizi jarreari darion rock intentso eta zuzena antzematen da. Bere lehen disko hark izan zuen kontzeptua berreskuratu nahi duelako *Esperantzara Kondenatua* disko honetan ere.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Irailaren 14tik 21era bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 21,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,017 € kilo. (-0,045)

**Zerramak:**  
0,360 € Kg/bizirik. (-0,030)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,04 (=)

**1.koa** 3,73 (=)  
**2.koa** 3,26 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,16 (=)

**1.koa** 3,85 (=)  
**2.koa** 3,36 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizokoak:**  
urruxak 170,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 160,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,00/3,10  
Zaldi-behorrak: 1,78/1,98  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,90/8,50  
8-10 kilokoak: 6,00/6,80

## JAKIN BEHARREKOAK

# Produktzio ekologikoa ala arrunta, zein da bietan nutritiboena?

AEBetako ikerketa baten arabera, tomate ekologikoak arruntak baino elikagarriagoak dira

Ez da oraingo kontua produktu ekologiko eta arrunten arteko eztabaida. Aditu taldeak horien inguruko ikerketak egiten aritu dira azken urteotan, eta berriki, horietako baten berri jakin dugu. Horren arabera, tomate ekologikoak tomate arruntak baino dezentez nutritiboagoak dira. Horixe ondorioztatu dute Kalifornia eta Minnesotako Unibertsitateetako ikerlariek: jatorri begetaleko landare eta elikagaiek duten flavonoide izeneko sustantzia naturala altuagoa dela tomate ekologikoetan. Flovonoideak osasunarentzako onuragarriak diren osagaiak dituen sustantzia dira eta landareak izurriteetatik babesten ditu. Hainbat ikerketek bihotzeko arazoak izateko au-



Ikerketak dio tomate ekologikoak osungarriagoak direla.

kera murrizten duela ere ondorioztatu dute. Tomate ekologikoetan sustantzia horren kopurua arruntetan baino ia %97 altuagoa dela dio azterketak. Horrelako ikerketak azenario eta gariarekin ere egin izan dira lehenago, baina ez dute desberdintasun nabarmenik eman. Tomateen ka-

sua, ordea, bertzela-koa omen da, baina baita kiwiena ere. Hala dio Journal of the Science of Food and Agriculture aldizkarian argitaratutako azterketak. Kiwi ekologikoak eta arruntak, batzuk zein bertzekak baldintza berdinetan erein arren, ekologikoen kasuan C bitamina eta aipatutako

flovonoide sustantzia altuagoa omen da. Ongarri eta pestizida artifizialen erabilerak aipatutako bitamina eta sustantzia maila jautsi egiten duelako izanen litzateke hori. Beti ere, ikerketako datuen arabera.

Eztabaida airean dago. Azterketa aunitz dira produktzio ekologikoa elikagarriagoa dela dioena, hala nola, patata ekologikoak betacaroteno eta E bitamina gehiago duela dion ikerketa. Hala ere, oraindik aunitz dago aztertzeko. Kontua da, kontsumitzaileek ere gero eta gehiago egin dutela elikagai ekologikoen aldeko apostua. Aipatutako aldizkariak, adibidez, 2003az geroztik produktzio ekologikoaren kontsumoa urtean %19 igo dela dio.

## LIBURUAK



Tiderrekin tea hartzen eta agur Pakito!

**MITXEL MURUA**  
ELKAR, 2007

Pirritx eta Porrotx familiak milakolore bildumako bertze bi ipuin plazaratu ditu Elkar etxeak, bosgarrena eta seigarrena. Mitxel Murua idatzi ditu ipuin hauek, eta aita saharrara eta ama euskalduna dituen Tider haurren istorioa kontatzen da lehenbizikoan, eta Nikaraguatik etorritako Pirritx eta Porrotxen Kintxo Barrilete lagunaren eta izurde baten arteko adiskidetasuna bigarrenan. Pirritxek eta Porrotxek Pakito izurdea ezagutu dute.

Beren lagun batek aurkeztu die, Kintxo Barriletek. Kintxo Barrilete Nikaraguakoa da. Amarekin etorri da Euskal Herrira, beren herrian pobrezia haundia dagoelako. Kintxok mediku izan nahi du haundia izandakoan. Kintxo kometa batekin ibiltzen da beti, eta Pakitori gustatu egiten zaio kometa jolaserako. Pirritx eta Porrotx ere izurdearen lagun egin dira, eta haren bizkar gainean itsas hondoa deskubrituko dute.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### BESTAK

#### GARTZAIN

Irailaren 11tik 14ra, Pilarika bestak. Xehetasunak 24. orrialdean.

### MENDI ATERALDIAK

#### SUNBILLA

Urriaren 14an, Larraun ibaiaren sorlekura ateraldia Ulibeltzak taldearekin. Urriaren 21ean, Nafarroako Mendigoizale Eguna ateraldia antolatu du Ulibeltzak taldeak.

### BAZTAN

Urriaren 11tik 14ra, Artikutzara ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak elkarteak.

### OSPAKIZUNAK

#### BERA

Urriaren 7an, Mugarik gabe topaketaren jaialdia, Altzateko frontoian: bertsolariak, folklorea, abesbatza..

### ZUBIETA

Urriaren 13an, Euskararen Eguna. Xehetasunak 16. orrialdean.

### BEINTZA-LABAIEN

Urriaren 6an, aretze erretzea eta besta eguna. Xehetasunak 14. orrialdean.

### FERIA

#### ELIZONDO

Urriaren 13an, Baztan Bidasoako artisauen feria Foruen Plazan, goizetik eguerdira bitarte.

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO

Urriaren 11n, Los tigres del norte taldearen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:00etatik aitzinera.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratutak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartitua
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS 

**ELIZONDO.**  
- 2. eskuko eta promozio berriko pisuak eta apartamentuak salgai.  
**ERRATZU-AZPILKUETA.**  
- Etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.  
**BERA.**  
- 2. eskuko pisuak salgai.  
- Ostatuak salgai.  
- Lur eremuak salgai.  
**LESAKA.**  
- Pisuak eta lur eremuak salgai.  
**DONEZTEBE.**  
- 2. eskuko pisuak salgai.  
- Promozio berriko 2 duplex salgai.  
**NARBARTE.**  
- 2. eskuko pisuak salgai.  
**SUNBILLA.**  
- Familia bakarreko etxeak eta adosatua salgai.  
**DONEZTEBE INGURUAN.**  
- Baserriak, etxeak, bordak, pisuak eta lur eremu eraikigarriak salgai.  
**ELIZONDO INGURUAN.**  
- Familia bakarrekoak eta lur eremuak salgai.  
**BAZTAN-BIDASOA.**  
- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.

**PROMOZIO BERRIAK.**  
**GARTZAIN:** 135 m<sup>2</sup>ko familia bakarreko etxebizitzak, 600 m<sup>2</sup>ko partzelarekin.  
**ORONAZ-MUGAIRI:** Bi familiako 8 etxebizitza, 178m<sup>2</sup> erabilgarri bi solairutan banatuta.  
**AGOITZ:** bi familiako 20 etxebizitza, 201 m<sup>2</sup> eraikiak eta 170 m<sup>2</sup>ko lorategiarekin.

INFORMA ZAITEZ!  
948 451 841 / 948580705  
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

**LESAKA.** 229 m<sup>2</sup>ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurrairekin eta lizentziarekin salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permuterako prest. ☎678 526091.



**BERA.** Legian pisua salgai. ☎948 630821/661115332.

**ELGORRIAGA.** 150 m<sup>2</sup>ko adosatua salgai, sartzeko prest. ☎666044176.

**LESAKA.** Bittirian pisu berria salgai. ☎659075659.

**BERA.** Bortzirriak-en 206 m<sup>2</sup>ko adosatua salgai 300

ANZABAL INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.**  
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.**  
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI.**  
- Baserria salgai 50.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurrairekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581 459  
anzabal@anzabal.com



m<sup>2</sup>ko eremu eta igerilekuarekin. 3 solairu, txokoa, garajea, 3 logela, 2 komun, egongela... ☎665724612.

**DONEZTEBE.** Aparan inguruan pisua salgai. ☎617461649.

**ELIZONDO.** 140 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, igogailuarekin. ☎617461649.

**ELIZONDO.** 90m<sup>2</sup>ko pisua salgai, nahi izanez gero bazerarekin. ☎649172567.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

**BERA.** Bidasoan 3 logela-ko pisua errentan emateko. ☎669 298356.

**BERA.** Agerran pisua errentan emateko. Igogailua, berokuntza, sukaldea eta komuna berritua... Mobleztatua. ☎659 963960.

**IRUÑA.** Ikasle-pisua errentan emateko, 3 logela. ☎630 045413.

**Baztango** promoción inmobiliaria

**SALMENTA:**  
**BERA:** Familia bakarreko 3 solairuko etxea, 675 m<sup>2</sup> ko lur eremuarekin.  
**BERA:** 3 solairuko etxea, 1.655 m<sup>2</sup> ko lur eremuarekin.  
**BERA:** 121 m<sup>2</sup> ko pisu berria, igogailuarekin.  
**BERA:** 89 m<sup>2</sup> ko pisu berria, igogailuarekin.  
**BERA:** 73m<sup>2</sup> ko pisua, 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.  
**BERA:** Etxebizitza izateko balio duen 78m<sup>2</sup> ko lokala, argisua.  
**ETXALAR:** Zaharberriutako baserria, 155 m<sup>2</sup> eta 3 solairuko, garajea eta lur eremua.  
**IGANTZI:** 229 m<sup>2</sup> ko etxea, 3 solairuko.  
**ARANTZA:** 76 m<sup>2</sup> ko pisua, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, trasteleku eta baraztea.  
**SUNBILLA:** Elkarri abokatuak 103 m<sup>2</sup> ko etxebizitza, 68 m<sup>2</sup> ko lur saila eta 25 m<sup>2</sup> ko atapea.  
**DONEZTEBE:** 100 m<sup>2</sup> ko pisua berria, 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trasteleku.  
**DONEZTEBE:** Erdigunean, 72 m<sup>2</sup> ko pisua eta baxera.  
**ERRATZU:** Zaharberriutako familia bakarreko etxea eta lur eremua.  
**LUR EREMUAK:**  
**BERA:** 2.155 eta 3.198 m<sup>2</sup> ko lur eremuak hirigunean.  
**ETXALAR:** 875 m<sup>2</sup>, **SUNBILLA:** 1.100 m<sup>2</sup>, **GAZTELU:** herri gunean 3.940 m<sup>2</sup>.  
**DONAMARIA:** 3.656 m<sup>2</sup> · **ELIZONDO:** 13.600m<sup>2</sup>, **ERRATZU:** 2.724 m<sup>2</sup>.  
Guztiz erabiltzeko.  
**ALOKAIRUA:**  
**BERA:** Pisua, 3 logelatakoa, mobleztatua eta igogailuarekin.  
**ESKARI HANDIA IZATEAGATIK ETXE ZAHARRAK, PISUAK, BASERRIAK BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.**  
Katttonberri karrika, 4 Tfñ. 948 630552  
31780 Bera, Navarra Faxa 948 630106

**andueza**

**NARBARTE:**  
- 85m<sup>2</sup> ko pisua, 20m<sup>2</sup>ko garajea, 100m<sup>2</sup>ko baraztarekin.  
30.500.000 Pzta  
**LEGASA:**  
- 94m<sup>2</sup> koPisua, 45m<sup>2</sup>ko terraza, 57m<sup>2</sup>ko garajearekin.  
**DONEZTEBE:**  
- Herri erdian, 107m<sup>2</sup> ko pisu berria salgai.  
42.000.000 Pzta  
**ORONAZ:**  
- Etxebizitza batean heru pisu berri salgai.  
**ELIZONDO:**  
- 130m<sup>2</sup>ko 3. balai salgai.  
Solairu bakarrekoak, eskalerrak gabekak.  
Oso erosokak, 400m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
**BASERRIAK ERE SALGAI**  
T. 948 23 88 18  
M. 620 20 87 87  
www.habitat24.com/andueza

**BULDAIN INMOBILIARIA**

Leitzan 3 etxebizitza berri Erosle ondoan. 248.000€ + BEZa (%7)  
Amanabat, 37 beheko LEITZA  
Ttokak: 948 510 534 + 649 476 618

**DONOSTIA.** 3 ikasle pisu bila Unibertsitate inguruan, Antiguian. ☎680187344.

**BERA.** Beran bizitzeko logela edota pisu bila nabil. ☎687871248.

ETXEBIZITZAK 105 Konpartitua

**IRUÑA.** Neska behar da Errotxapean etxea konpartitzeko. Hobe ikaslea bada. ☎620 370263.

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

**LESAKA.** 20m<sup>2</sup>ko garajea salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**BEASAIN.** Etxebizitza moduan egokitutako beheko solairua salgai, moblezt. 63.500€. ☎686 062963.

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

LANA 301 Eskariak



**VENTANAS ARAMBURU**  
Ongizate termiko eta akustikoa  
Aluminioa egur koloretan

Gabiria, 42 IRUN  
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11

**BORDA**  
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK  
DEKORAZIOA  
ERABERRITZEAK  
SABAI MODULARRA

Abitur 37-8 (ESAKA)  
bordeak@ttipi.net  
Telefono: 948 637 546  
Fax: 609 477 277

**Emakumea** eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎618 391026/ 948 580473.

**Emakumea** eskaintzen da interna edo orduka etxeko lanak egin edo adinekoak zaintzeko. ☎696 576994.

**Neska euskalduna** edozein lanetan aritzeko prest. ☎669180779.

**BAZTAN.** Emakumea lan egiteko eskaintzen da, orduka hobe. ☎948 393344.

**DONEZTEBE** eta inguruan adinekoak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎948 451374.

**LESAKA.** Umeak zaintzeko neska eskaintzen da, arratsalde. ☎645 716509.

### LANA 302 Eskaintzak

**LESAKA.** Asteburuetan 2 zerbitzari behar dira Atxasperi Ostatuan. ☎948637536.

**IRUÑA.** Neska euskalduna behar da 8 urteko umea zaintzeko, 12:45etik 15:00-etara, irailetik ekainera, Donibane auzoan. ☎948 177 629 (15:30etik aurrera).

**BERA.** Benta Migel jate-txean asteburuetan, eguerdian aritzeko zerbitzaria behar da. Frantsesa jakin behar da. ☎948 631394.

**ETXALAR.** Etxalarko Bentak Hotelean asteburuetan aritzeko euskara, gazteleara, ingelesa eta frantsesadakien harreragilea behar da. ☎948 635000.

**BERA.** Ibardinen urte osoan lan egiteko frantsesadakien neska behar da. ☎948 630734.

**ETXALAR.** Bolondresak behar dira asteburuetan buru-eritasuna duten pertsonen egoteko, Anasaps elkartean. ☎677 031920.

**SUNBILLA.** Kanpinean asteburuetan neska zerbitzaria behar da. ☎948 450540. Inguruko enpresa batek **urbanizatueta lan egiteko** 2.mailako ofiziala edo peioi espezializatua behar du. ☎616513491.

**BERA.** Adineko bikotea zaintzeko autoa duen emakumea behar da, astebetean, goizez bi eta arratsaldez bi ordu. ☎617 185990.

**BERA.** Jatetxe batean zer-

bitzaria behar da ortziral, larunbat eta igandetan lan egiteko. ☎605 864355.

**DONEZTEBE.** Bixen ostatuan sukaldean eta asteburuetan zerbitzaria behar da. ☎948 450383.

**Trailerrarekin** ibiltzeko txoferra behar da. Egunean 7 ordu eta bi tornetan. Ongi ordaindua. ☎630 989415.

**Ileapaindegi** batean lanaldi-erdirako norbait behar da. ☎948 638004/667536132.

**ETXALAR.** Goizetan haurra zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko emakume euskalduna behar da. ☎679642883 (15:30etik aurrera).

**BERA.** Elektrikari ezagupenak dituen zonaldeko euskalduna behar da etxeetara joan eta etxetresnak konpontzeko. Frantsesa jakitea baloratuko da. Curriculumak: Bidasoa 45, 31780 Bera. ☎948 630377.

**BERA.** Churrut hotelean harreragilea eta zerbitzaria behar dira. ☎948 625540.

**SUNBILLA.** Goizetan bi haur zaintzeko emakumea behar da. ☎606172156.

**DANTXARINEA.** Ileapaindegian aritzeko laguntzaileria behar da. ☎948 599129 (10:00etatik 18:00etara).

**OIEREGI.** Bertizko natur

parkean lanerako pertsona behar da. ☎948 592421 edo ostaitz@yahoo.es.

**BERA.** Ibardingo Beola jate-txean zerbitzaria behar da eguerdian 4 orduz lan egiteko. ☎948 630709

**ELIZONDO.** Emakume euskalduna behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, astelehenetik ortziralerara. ☎606370382.

### MOTORRA 501 Salerosketak

**Saab 9.000** salgai, 230 CV. 1997koa eta hagitz egotera onean. ☎699974901.

**Audi A4 2.0 TDI** salgai, 140 CV, 2006koa. Egoera onean. ☎626260556.

**Xsara 2.0 HDI** autoa salgai, 200koa, hagitz egotera zaindua. ☎687 950350.

**Ardiak** garraiatzeko 2,5x1,35 metroko **remolkea** salgai. Frenoarekin eta gutti erabilia. ☎660601303.

**GranVitara NA-AZ** autoa salgai, egoera onean, beti garajejan lo egina eta mendian gutti erabilia. 137.000 kilometro eta ITV 2 urterako pasatua, cc,ac, mp3, 4x4 eta abar. ☎661821645.

**Volkswagen transporter** furgoneta salgai, 2,5 TDI, 2002koa eta 5 plaza. ☎605717957.

**Nissan patrol GR** luzea salgai, 2.800, 115 CV, 1994koa, 8.000 euro. ☎605717957.

### MOTORRA 502 Tailerrak

### MENDAU MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko autoak:**  
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Mitsubishi Intense 3 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Terrano II 5 ate, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa, Galloper Super Exceed 3ate, Montero IO 5 ate, Ibiza, Seat Inca, Almera, Fiat Doblo, Nissan Navarra eta Frontera 3-5 ate. SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

### TALLERES SANTESTEBAN 948 450282 • DONEZTEBE

#### AUTO IA BERRIETAN ESKAITZA ZABALA (6-12 hilabeteak)

Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

**BIGARRIN ESKUKOAK**  
Renault 19 Chamade, Kangoo 1.9 D (gibealeko aldean itxia), Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Laguna Grand Tour Privilege 2.2 DCI, Laguna 1.9 D, Citroen Saxo 1.9 D.

### ANIMALIAK 601 Emateko

**Txakurkumeak** oparitzeko. ☎652 725037.

### DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

Irailaren 1ean Berako Matzada futbol zelaian **giltzak aurkitu** ziren. Berako Goia dendan daude.

### DENETARIK 702 Salerosketak

**Bigarren eskuko ordonagailua** salgai, eguneratua, osagarriekin (grabagailua, Interneteko sarbidea, inprimagailua...) eta mahaiarekin. Prezioa adostuko da. ☎669 336188.

**Piano tekladua** Roland E50 salgai. Berria, erabili gabea. ☎618 962728.

'Acoustik Control' **soinu ekipoa** salgai, amplifikadore (150W) eta 2 altaboz (100W). Egoera ona, prezio interesgarria. ☎678 040 846 edo t\_x\_i\_k\_i@hotmail.com.

### DENETARIK 703 Bertzelakoak

**Bi akordeoilarri** esperientziadun eta profesionalak ezkontzak eta bestak alaitzen joko lukete. ☎943 622564 / 677310256 (Agustin eta Estitxu).

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



**AIORA APEZTEGUI** eta **ETXEBERRIA** goizuetarrak 3 urte bete ditu irailaren 24an. Zorionak eta muxu bat etxeko sorgintxoari attatto eta amatoren partetik.



**SARA SANTESTEBAN** eta **OTXANDORENAK** urtea beteko du urriaren 4an. Zorionak Zubietako bi familia eta bereziki aitaxo eta amatoren partetik.



**ENAITZ** sunbildarrak irailaren 23an 3 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



**Berako DUNIAK** irailaren 27an urteak bete ditu. Zorionak eta 12 muxu familia guztiaren partetik.



**JOSEBA** eta **ELIA** etxalartarrek irailaren 23an eta 27an urteak bete dituzte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



**XILBI** eta **ASIER**. Irailaren 15ean beten Sunbilloko inauterietan emandako berri ona. Zorionak Sunbilloko lagunaren partetik eta ongi ibili ezkon bidaian. Aupa karakolak!



**NAHIA GANBOA** eta **ANTZIZAR** gure sorgintxoak 3 urte bete ditu irailaren 16an. Muxu eta besarkada haundi bat Doneztebe eta Sunbilloko familiaren partetik.



**BENAT** ttikia, handitzen ari zara, pilotan ari zeko prestatu eskua. Futbolin aurrelari, mahin bertsolari. Zorionak zuri eta ehun muxu haundi. Zubietako.



**ENDIKA PINTO MARITXALAR** beratarrak urriaren 6an 3 urte beteko ditu urriaren 6an. Zorionak eta egun ona pasa atxiki eta amatxiren partetik.



**ENDIKA PINTO MARITXALAR** beratarrak 3 urte beteko ditu urriaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat attatto eta amatoren partetik.



**ITXASO BERROZPE MITXELENA** lesakarrak 9 urte bete ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat zure anaia Jonan, zure lehengusu Janire eta izeba, amatxi, ataxi eta gurasoen partetik. Egundua pasa printzesa.




**ENAITZ PORTU ZELAIETA** sunbildarrak irailaren 23an 3 urte bete ditu. Zorionak eta hiru muxu pottolo gure xagutoari atxa, ama eta Sunbilloko familia guztiaren partetik. Aupa txapelidun!



**ENAITZ PORTU, SARAI BAZTERRIKA** eta **MANEX IPARRAGIRRE** sunbildarrak 3 urte bete dituzte irailaren 23an, 30ean eta urriaren 1ean. Zorionak aunitz hirurei Koro eta Iduriaren partetik. Ongi pasa!



**ENAITZ PORTU ZELAIETA** sunbildarrak irailaren 23an 3 urte bete ditu. Zorionak zure lehengusu Oihane, Ainara, Asier eta Gorkaren partetik. Zure gonbidapenaren zain egonen gara.



**Doneztebeko URKO OIARZABAL**. Zorionak etxeko txikiari 3 urte bete dituelako irailaren 21ean. Muxu haundi bat denen eta bereziki Iratiren partetik.



**Tolosako ARANTXA** eta **OIER** amasemek 32 eta 2 urte bete dituzte irailaren 22an eta 27an. Zorionak familiaren partetik, bereziki izeba M<sup>o</sup> Joseren partetik. Ondo pasa egun berezi hauek.



**SARAY BAZTERRIKA OBREGOZO** sunbildarrak 3 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak gure printzesarari Pixanekobordako familiaren partetik.



**Almandozko OIER** eta **AIMAR AROZENA MITXEOK** 3 eta 5 urte bete dituzte irailaren 21 eta 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat amatxi, aita, ama eta bereziki zuen anaia Mikelen partetik.



**Errenteriako IRATI SANTESTEBAN ELIZALDEK** 4 urte bete ditu urriaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Elizondoko JOSU DAGERRE MARTIRENAK** 6 urte bete ditu urriaren 3an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Zorionak bihurri



**Iruñeko AIMAR ALTZUZUREN LARRAZAK** irailaren 27an 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Maddalen eta Leireren partetik.



**Urdazubiko ZUHAITZ BAZTERRIKAK** 5 urte beteko ditu urriaren 7an. Zorionak aita eta amaren partetik.



**Lesakako MARIA, IKER** eta **ANEK** 8, 1 eta 5 urte beteko dituzte urriaren 8an, 26an eta azaroaren 8an. Zorionak eta aunitz urtez gurasoen partetik.



**NAHIA IRIGOIEN PEREZ** etxalartarrak 15 urte bete ditu irailaren 28an. Zorionak eta aunitz urtez.



**OLAIA OTXOTEKO DOMINGEZ** lesakarrak 10 urte beteko ditu urriaren 10ean. Aunitz urtez eta muxu pilla Ariz eta gurasoen partetik.



**ROSARIO MONAKO** leitzarrak urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Aurtizko familiaren partetik. Besarkada haundi bat Ekiñeren partetik.



**Errenteriako IRATI SANTESTEBAN ELIZALDEK** 4 urte bete ditu urriaren 2an. Zorionak Tolosako familiaren eta bereziki Nerea eta Noraren partetik.



**Zorionak ANE** zure urtebetetze egunean. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik, bereziki etxeko bi sorginen aldetik.



**ANE OTAMENDI** beratarrak 4 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat Naroren partetik.



**BENAT ALBISU** ETXEBERRIAK 2 urte bete ditu. Hamaika muxu!!



**Sunbilloko PABLO IRAZOKI** OLAIZOLAK urriaren 10ean 3 urte beteko ditu. Zorionak eta hiru muxu zure atxa eta amatoren partetik.



**KIARA AGUDO SANZ** olaztiarrak 3 urte beteko ditu urriaren 8an. Zorionak nano, aitaxi-amatxi eta izeba-osaren partetik. Muxu asko asko.

ttipi-ttapa

- >> berriak
- >> agenda
- >> urtebetetzeak
- >> markatu ttipia
- >> dendak
- >> bideoak
- >>

urtebetetzeak interneten



**RENOVE PLANA**  
etxetresna elektrikoetarako



**A motako etxetresnek energia gutxiago kontsumitzen dute. Garestiagoak dira, baina energia aurreztearekin gastua konpentsatzen da eta, gainera, ingurumenari mesede egiten zaio.**

**Heldu den abenduaren 31ra arte dirulaguntzak eskuratzen ahal dira ikuzgailuak, ontzi-garbigailuak, izozkailuak eta hozkailuak berritzeko kanpainari atxikitutako establezimenduetan. Dirulaguntzak 2008ko lehen hiruhilekoan jasoko dira.**

*Luzatua*

***A motako bat  
erosteagatik***

**80  
euro**



Argibide gehiago [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean edo 948 01 30 60 telefonoan.



Nafarroako  
Gobernua

# Lur

urriak 6  
**LUR D JOTAK I MAURO + NASH**  
00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak 11

# LOS TIGRES DEL NORTE

00:00 24€ aurretik 27€ takillan

SALMENTA PUNTUAK: ELIZONDO Antxitonea, Futbolin,  
Txokoto eta Kortarixar LESAKA Atxaspl IRUÑA Elkar  
Comedias (Xalbador) T.948224167

urriak 13  
**LUR D JOTAK I AK + NASH**  
00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak 20  
**LUR D JOTAK I MAURO + NASH**  
00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urriak 27  
**LUR D JOTAK I AK + MAURO**  
00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

BISITA EZAZU  
GURE WEB ORRIA

[LURELIZONDO.COM](http://LURELIZONDO.COM)

Leguntzailak:

Mahou

Carlsberg

Bartango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK